



ARANZADIKO BERRIAK 2014

aranzadiana 135

Gomendatutako katalogo fitxa:
Ficha bibliográfica recomendada:

ARANZADIANA

Aranzadiko berriak 2014
135. Zka. / nº 135

Zuzendu gutunak helbide honetara:
Diríjase toda la correspondencia a:

ARANZADI

Zientzia elkarteak - Sociedad de ciencias
Society of sciences - Soci  t   de sciences
Zorroagaina 11
20014 Donostia - San Sebasti  n
Tel.: 943 466142 - Fax 943 455811
e-mail: idazkaritza@aranzadi.eus
www.aranzadi.eus

Argitalpenaren zuzendaritza: Juantxo Agirre-Mauleon

Edukien koordinaketa: Mikel Edeso

Azaleko irudia: Juantxo Ega  a

Diseinua, maketazioa eta irudien tratamendua: www.didart.eu

ARANZADIANA Aranzadi Zientzia Elkarteko urtekaria da
eta dohainik banatzen da bazkideen artean.

**ARANZADIANA es el anuario de la Sociedad de Ciencias Aranzadi
y se distribuye gratuitamente a los socios.**

Donostia - San Sebasti  n 2014
ISSN: 1132 - 2292
D.L.: SS 445/92

Inprimaketa eta kuadernaketa: Michelena Artes Gr  ficas, s.l.

Babesleak / Colaboran:

Ministerio de Educaci  n, Cultura y Deporte
Eusko Jaurlaritza - Gobierno Vasco
Gipuzkoako Foru Aldundia - Diputaci  n Foral de Gipuzkoa
Bizkaiko Foru Aldundia - Diputaci  n Foral de Bizkaia
Innobasque
Kutxa Fundazioa

F. LEIZAOLA



Aranradi elkarteari, nere ikerketelan
sinbete lagundu dianari asmoz eta
lotuer. Aizun'en, 1978^{te} Jorruillaren 29^o
Barandiaran *[Signature]*

www.aranzadi.eus

POSTA ELEKTRIKOEN HELBIDEAK DIRECCIONES DE CORREO ELECTRÓNICO

Zuzendaritza / Dirección:
zuzendaritza@aranzadi.eus

Idazkaritza / Secretaría:
idazkaritza@aranzadi.eus

Liburutegia / Biblioteca:
liburutegia@aranzadi.eus

Komunikazioa / Comunicación:
komunikazioa@aranzadi.eus

Artxiboa / Archivo:
artxiboa@aranzadi.eus

Kontabilitatea / Contabilidad:
gestorea@aranzadi.eus

SAILAK / DEPARTAMENTOS:

Antropologia / Antropología:
antropologia@aranzadi.eus

Arkeologia Historikoa / Arqueología Histórica:
arkeologia@aranzadi.eus

Historiaurreko Arkeologia /
Arqueología Prehistórica:
historiaurrea@aranzadi.eus

Etnografia / Etnografía:
etnografia@aranzadi.eus

Astronomia / Astronomía:
astronomia@aranzadi.eus

Botanika / Botánica:
botanika@aranzadi.eus

Mikologia / Micología:
mikologia@aranzadi.eus

Entomologia / Entomología:
entomologia@aranzadi.eus

Espeleologia
espeleologia@aranzadi.eus

Herpetologia:
herpetologia@aranzadi.eus

Ornitologia:
oficinaanillamiento@aranzadi.eus

Geodesia:
geodesia@aranzadi.eus

Geologia:
geologia@aranzadi.eus



ZUZENDARITZA BATZORDEA / JUNTA DIRECTIVA

Lehendakaria / Presidente: Francisco Etxeberria
Lehendakariordea / Vicepresidente: Jokin Otamendi
Diruzaina / Tesorero: Rafael Zubiria
Idazkaria / Secretario: Javier Cantera
Batzordekideak / Vocales: Juan Antonio Alduncin,
Juan Arizaga, Jose Angel Irigarai, Mari Jose Iriarte,
Juan Mari Martínez Txoperena, Jabier Puldain

BATZORDE ZIENTIFIKOA / COMITÉ CIENTÍFICO

Dr. Juan Antonio Alduncin, Dra. Arantza Aranburu,
Dr. Pablo Arias, Dr. Juan Arizaga, Dr. Angel
Armendariz, Dr. Alvaro Arrizabalaga,
Dr. Juan Luis Arsuaga, Dr. Pedro Castaños,
Dr. Alejandro Cearreta, Dr. Alberto de Castro,
Dr. Alex Ibáñez, Dra. María José Iriarte,
Dr. Eduardo Leorri, Dra. Leticia Martínez de
Murguía, Dr. Jose Antonio Mujika, Dr. Carlos
Olaetxea, Dr. Xabier Peñalver, Dr. Javier Urrutia,
Dr. Jokin Zurutuza

MUNIBE (ANTROPOLOGIA-ARKEOLOGIA)

Zuzendaria / Director: Dr. Juan Luis Arsuaga
Idazkaria / Secretario: Dr. Alvaro Arrizabalaga
Batzorde Zientifikoa / Comité Científico:
Dr. Juan Maria Apellaniz, Dr. Pablo Arias, Dr. Angel
Armendariz, Dr. Pedro Castaños, Dr. Nicholas
Conard, Dr. Francisco Etxeberria, Dr. Philippe Fosse,
Dr. Pascal Foucher, Dr. Marcos Garcia, Dr. Iñaki
Garcia Camino, Dr. Alex Ibáñez, Dra. María José
Iriarte, Dr. Jose Antonio Mujika, D. Fermín Leizaola,
Dr. Carlos Olaetxea, Dr. Xabier Peñalver, Dr. Juan
Antonio Quirós, Dr. Andrew Reynolds, Dr. Jesús
Sesma, Dr. Lawrence G. Straus, Dra. Lydia Zapata

MUNIBE (CIENCIAS NATURALES-NATUR ZIENTZIAK)

Zuzendaria / Director: Dr. Juan Arizaga
Comité científico: Dr. Ricardo Ibáñez, Dr. Asier
Hilario, Alberto Gosá, Dr. Ibai Olariaga, Dr. Arturo
Elosegi, Dr. Alberto Castro, Dra. M. Carmen Escala,
Dr. Emilio Barba, Dr. Ignacio Doadrio, Dr. Eduardo
Leorri, Dr. Fernando Alda, Dr. Álvaro Bueno,
Dr. Iván de la Hera

Aranzadi Zientzia Elkarteak eskerrak eman nahi
dizkie bazkide guztiei euren etengabeko
babesagatik, eta baita urtean zehar lagundu
diguten pertsona eta erakunde guztiei ere.
Eskerrik asko denori.

La Sociedad de Ciencias Aranzadi quiere
agradecer a todas las personas y organismos que
nos han ayudado a lo largo del año.
Gracias a todos.

URTEKO TXOSTENA / MEMORIA GENERAL	8
Aranzadi Zientzia Elkarteko Artxibo Orokorra	28
Komunikazio txostena	40
Juan txo Egaña, 2014ko ARANZADIANAREN azalaren egilea	46
Txosten Ekonomikoa	47
Ainhoa Iraolari elkarrizketa	56
FEDHAV	60
Niessen, 100 años de historia	62
Hitos Científicos 2014ko Mugarriak	64
GIZARTE ETA HEZIKETA EKINTZAK	66
HEZIKETA PROIEKTU EUROPARRAK	68
ZERO ZABOR ESKOLAK	72
ARANGUREN LANTEGI ESKOLA	74
URDAIBAI BIRD CENTER	76
AUZOLANDEGIAK 2014	80
PRESOEN BIRGIZARTERATZE EKIMENA	82
EKI PROIEKTUA	84
BURBUNAK ETA ETSAYAK	86
IRUNGO TXORIAK	87
CIENCIAS HUMANAS Y SOCIALES	88
ANTROPOLOGIA FISIKOA	90
ARKEOLOGIA HISTORIKOA	102
HISTORIAURREKO ARKEOLOGIA	132
ETNOGRAFIA	154
CIENCIAS NATURALES	160
BOTANIKA	162
ENTOMOLOGIA	186
HERPETOLOGIA	190
MIKOLOGIA	222
ORNITOLOGIA	228
CIENCIAS DE LA TIERRA Y DEL ESPACIO	246
ASTRONOMIA	248
ESPELEOLOGIA	260
GEODESIA	270
GEO-Q ZENTROA	276
LIBURUTEGIA	290
2014. URTEKO ARGITALPENAK	295


ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO URTEKO TXOSTENA

XXI. mendearen hasiera honetan bizi dugun mundu globalizatu eta nahasian, kultura zientifikoa bihurtu da gizartearen aurrerapenerako eta ongizaterako erreferentzia nagusietako bat. Hori dela eta, Aranzadirenaren moduko proiektuak are baliotsuagoak dira. Izan ere, herritarrek sinergia positiboak sor ditzaketela erakusten du. Naturaren eta gizakiaren ingurunekeo esparruetatik haratago, gizarte kultuago, askeago eta Giza Eskubideekiko errespetutsuago gisa aurrera egiten laguntzen digute.

INFORME GENERAL DE LA SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI

En un mundo tan globalizado y convulso como el que define este comienzo del siglo XXI, la cultura científica se ha convertido en una de las principales referencias para el progreso y bienestar de las sociedades. Es por ello que un proyecto como el de Aranzadi se convierte en más valioso porque demuestra cómo la ciudadanía puede generar sinergias positivas, que más allá de los ámbitos del medio natural y humano nos permiten avanzar como una sociedad más culta, libre y respetuosa con los Derechos Humanos.



Ezagutza eta hizkuntza belaunaldiz belaunaldi transmititu behar da. Koldo Artola euskararen ikerlaria Erronkariko umeekin. *El conocimiento y el idioma se tienen que transmitir de generación en generación. El investigador del euskara Koldo Artola con niñas y niños roncaleses.*  J. AGIRRE

Aranzadiren aldizkariak jasotzen ditu Elkar-
tearen baitan 2014. urte osoan egindako jar-
duera nagusiak. Horixe da gure egungo
egoeraren inguruan izan dezakegun irudi erreale-
na. Gehienetan kanpotik ikusten gaituztenak bat datoz
lantzen ditugun esparru ugarien kopurua, gure dina-
mismoa eta heterogeneotasuna azpimarratzeko ga-
raian. Modu positiboan baloratzen dute gure identi-
tatea eta gure ekoizpena aitortzen dute eta, batez
ere, kontuan izanda proiektu horiek garatzeko egun
bizi dugun errealitate ekonomiko zaila.

Aranzadik bere ekoizpen-erritmoari eusteko
funtsezko gakoak dira hauek: jarduera-esparruen
dibertsifikazioa, gure jardueren nazioartekotzea eta
sareko lana. Hori dela eta, ez gaude sektore bakar-
ren edo finantzaketa-iturri bakarraren mende. Adi-
bide gisa, aipatu beharrekoa da duela hamar urte
arkeologia zela esparru aktiboenetako bat eta finan-
tzaketa handiena jasotzen zuenetako bat eta profes-
ionalizazio maila oso altua zela, baina gaur egun,
aldiz, boluntariotza da haren bultzatzaile ia bakarra.
Beharrezkoa izan da gizarte arloko esparruekin lotu-
tako formula berriak bilatzea kultur ondarearen iker-
keta eta babes arloko gure helburuekin aurrera ja-
rraitu ahal izateko. Horrekin lotuta, gizarteratze eta
lan-munduratzeko arloko ekimenak lorpen garrantzi-
tsuak dira Aranzadiren gaur egungo dinamiketan.
Horiekin lotuta, hauek aipatu behar dira: Gipuzkoa-
ko presoekin garatutakoak edo Arangureneko En-
plegu Tailerrak, eskola-porrota eta epe luzeko langa-
bezia jasan duten gazteei zuzendutakoak. Hori guz-
tia, bestalde, herritarren egungo beharrei
erantzuteko gure gaitasunaren isla ere bada.

2014. URTEA MUGARRI GARRANTZITSUA IZAN DA HEDAPENEAN

Aranzadin ikertu, ezagutza sortu, hedatu eta ezagu-
tza hori gizarteari itzultzen diogu bide ugari-
ren bidez: monografiak editatuta, aldizkari zientifikoetan
artikuluak argitaratuta edo komunikabideen (oso
garrantzitsua da bide hori) eta Aranzadiren webgu-
nearen bidez. Aranzadin sortutakoa herritarrei itzul-
tzeko prozesua oso bizkor egiten saiatzen gara.
Aranzadiren moduko erakunde xume batek duen
eragin mediatiko handia komunikazio sailak egiten
duen lanari esker eta jarduera-esparruak interes so-
zial handikoak direlako lortzen dugu.

Urte bikaina izan da eta emaitza ona lortu dugu
hedapen zientifikoaren arloan. Natura-zientziei eta
arkeologia-antropologiari buruzko Munibe aldizka-
riko ohiko aleez gain, beste hiru monografiko argita-
ratu ditugu: bat Jaizkibel mendiko ondare naturala-
ren inguruan, beste bat urpeko ugaztunen inguruan,
eta beste bat Nafarroako euskararen inguruan. Horri
guztiari, gainera, honako hauek gehitu behar dizkio-
gu: gizakiaren aztarnari eta ingurumen-aldaketei

La revista Aranzadiana recoge las principales
actividades realizadas en el seno de la Sociedad
durante el año 2014, es la imagen más real que
podemos tener de nuestra situación actual. Quienes
generalmente nos observan desde el exterior coinci-
den en subrayar nuestro dinamismo, la heterogenei-
dad y cantidad de ámbitos que abarcamos, valoran
positivamente nuestra identidad y reconocen nues-
tra producción, sobre todo teniendo en cuenta la
difícil realidad económica actual para el desarrollo
de dichos proyectos.

La diversificación de ámbitos de actuación, la in-
ternacionalización de nuestras actividades y el trabajo
en red están siendo claves para que Aranzadi siga
manteniendo su ritmo de producción, de este modo no
dependemos de un único sector ni de una única fuen-
te de financiación. A modo de ejemplo cabe señalar
que si hace diez años la arqueología era uno de los
ámbitos más activos y con mayor financiación, con un
nivel de profesionalización muy alto, en la actualidad
el voluntariado es su casi exclusivo motor. Ha sido
preciso buscar nuevas fórmulas relacionadas con los
ámbitos sociales para dar continuidad a nuestros obje-
tivos en materia de investigación y protección del
patrimonio cultural. En este sentido iniciativas en
materia de inserción social y laboral, como las desarro-
lladas con la población reclusa de Gipuzkoa o los Talle-
res de Empleo de Aranguren, destinados a jóvenes con
fracaso escolar y desempleo prolongado, son impor-
tantes hitos en las dinámicas actuales de Aranzadi. Ello
también es reflejo de nuestra capacidad de responder
a las necesidades actuales de la ciudadanía.

2014 UN IMPORTANTE HITO EN LA DIFUSIÓN

En Aranzadi se investiga, se genera conocimiento, se
divulga y se revierte dicho conocimiento a la sociedad,
tanto a través de edición de monografías, como de
publicación de artículos en revistas científicas, o lo
que es muy importante a través de los medios de co-
municación y de la web de Aranzadi. La reversión a la
ciudadanía de lo generado en Aranzadi se intenta
realizar de una forma muy rápida: la elevada inciden-
cia mediática de una entidad tan modesta como Aran-
zadi viene dada por el trabajo realizado por el departa-
mento de comunicación y porque los ámbitos de
actuación son de gran interés social.

Este ha sido un año con un gran resultado en la
divulgación científica, a los números habituales de la
revista Munibe de Ciencias Naturales y Arkeologia-
Antropologia, se han añadido tres monográficos, uno
sobre el patrimonio natural en el monte Jaizkibel, otro
sobre mamíferos subacuáticos y otro sobre el euskara
en Navarra. A ello hay que añadir el número 4 de la
revista CKQ sobre huella humana y cambios medioam-
bientales, dos nuevas monografías en la colección de
historia de la comarca de Tolosaldea, Arbel Beltza, una



Aranzadiko ornitologoak naturarekiko zaletasuna irakasten. *Ornitólogos de Aranzadi enseñando a amar y aprender de la naturaleza.*

buruzko CKQ aldizkariko 4. alea; Tolosaldeko historiaren bildumako beste bi monografia; hezkuntzaren historiari buruzko Arbel Beltza argitalpena; Gallipienzo udalerriari buruzko monografia historikoa; hegaztiei buruzko haurrentzako gida; eta 1931-1945 urteetan oinarritutako Leioari buruzko bi bilduma. Elkarteak, beraz, hamabi argitalpen kaleratu ditu eta gure ikerketa-taldeek sortutako edukiak jasotzen dituzte. Horri guztiari, gainera, aldizkari zientifikoe-tan argitaratutako artikulua eta bi monografia (San Kristobal gotorlekuan egindako ikerketari buruzko bat eta Praileaitz historiaurreko kobazuloari buruzko beste bat) gehitu behar dizkiogu.

ERREFERENTZIAZKO ERAKUNDEA DA ESPARRU UGARITAN

Aranzadi erreferentzia bihurtu da esparru hauetan: memoria historikoa, Giza Eskubideak, ornitologia, herpetologia eta botanika. Horren adibide gisa, aipatu beharrekoak dira honako hauek: 1936 eta 1945 urteen artean desagertutako pertsonen inguruan egindako ehunka esku-hartzeak (horiei esker, Euskaditik kanpo ikerketa arkeologiko-antropologikoko proiektu gehien egin dituen erakunde zientifikoa bihurtu gara) edo Iberiar penintsula osoan Aranzadi-aren datuekin eraztuna jarri zaien milaka hegaztiak (1947. urtean Eraztuna jartzeko Bulegoa sortu zenetik fundazioak lortutako mugarrria da). Hori guztia lan-talde ugariak erabilitako metodologiaren sinergiaritasunari eta lanerako gaitasunari esker lortu dugu. Era berean, azpimarratu beharrekoa da giza

publicación sobre la historia de la educación, una monografía histórica sobre la localidad de Gallipienzo, una guía infantil sobre las aves y dos volúmenes sobre Leioa entre los años 1931-1945. Un total de doce publicaciones editadas por la Sociedad y con contenidos generados por nuestros equipos de investigación. A ello hay que añadir los artículos publicados en diferentes revistas científicas, dos monografías, una sobre la investigación realizada en el fuerte de San Cristóbal y otra sobre la cueva prehistórica de Praileaitz.

ENTIDAD DE REFERENCIA EN DIVERSOS ÁMBITOS

En ámbitos como la memoria histórica, los Derechos Humanos, la ornitología, la herpetología o la botánica, Aranzadi se ha convertido en referencia. Como ejemplo mencionar las decenas de intervenciones sobre personas desaparecidas entre los años 1936 y 1945, lo que nos ha convertido en la entidad científica que más proyectos de investigación arqueológica-antropológica ha realizado fuera del País Vasco, o también se pueden destacar las miles de aves que con el remite de Aranzadi se han anillado por toda la Península Ibérica, es un hito desde la fundación de la Oficina de Anillamiento en 1947. Todo ello ha sido debido a la capacidad de trabajo y a la credibilidad de la metodología empleada por los respectivos equipos de investigación. También es preciso remarcar que la agilidad de respuesta a peticiones de instituciones y personas particulares ante temas complejos en el ámbito de los Derechos Humanos, de temas sociales o medio ambientales, es posible gracias



Bazkide eta ikerlarien ekarpenei esker Aranzadiko artxiboa geroz eta aberatsagoa bihurtzen ari da, hiritar guztiei zabaldua dago eta zerbitzua doakoa da. Argazkian, Anais Rodríguez, artxiboaren arduraduna Fermin Leizaola etnografoarekin. *El archivo de Aranzadi se está enriqueciendo gracias a las aportaciones de investigadores y socios, está abierto a toda la ciudadanía y el servicio es gratuito. En la fotografía, Anais Rodríguez junto al etnógrafo Fermin Leizaola.*

eskubideen, gai sozialen edo ingurumen arloko gaien inguruko gai konplexuen aurrean erakundeek eta pertsona partikularrek egindako eskaerei erantzuna bizkor ematea posible dela metodologia menderatzen dugulako eta Aranzadiren jarduera-esparrua behar bezala zehaztuta dagoelako informazio fidagarria eta benetakoa sortzen duen neurrian.

2014. urtean aurkeztutako proiektu kopurua 200 baino gehiagokoa izan da eta guztiek ez dute diru-laguntza jaso.

Gogorarazi beharrekoa da Aranzadiren jarduera ugari boluntariotza-erregimenaren pean egiten direla eta, emaitza zientifikoetan eta komunikabideetan eragina duten arren, gero ia ez dutela kontularitza arloko eraginik izaten.

AUSTERITATE EKONOMIKOA ETA BARNE-ANTOLAKETA

2014an aurreko urteko emaitza berak lortu ditugu ekonomiari dagokionez. Aranzadik kontu saneatuak aurkeztu ditu, zorpeterik gabeak, baina austeritatea maila gorena eramanda. Eusko Jaurlaritzako aurrekontuetan zuzeneko laguntza lortzeko helburuarekin lanean jarraitu dugu. Laguntza funtzionamendu orokorrerako erreferentziazko erakunde zientifikoekin lotuta Europako herrialde aurreratuena egiten duten moduan, eta Espainiako Gobernuak, Gipuzkoako Foru Aldundiak eta Donostiako Udalak egiten duten bezala. Horrekin lotuta, hauxe izan da berrikuntza: Legebiltzarreko taldeen babesari eta talde sozialistaren ekimenari esker, gure historian lehen aldiz, Aranzadiren ohiko funtzionamendura bideratutako diru-laguntza lortu dugu 2015. urterako. Lanean jarraitu ahal izateko ezinbestekoa izango da.

al dominio de la metodología y a que el ámbito de actuación de Aranzadi está debidamente definido, como generador de información cierta y fiable.

El número de proyectos presentados en el año 2014, supera los 200 y no todos ellos están subvencionados.

Es preciso recordar que muchas de las actuaciones de Aranzadi se realizan en régimen de voluntariado y pese a su incidencia en resultados científicos y en los medios de comunicación apenas tienen reflejo contable.

AUSTERIDAD ECONÓMICA Y ORGANIZACIÓN INTERNA

En 2014 se repiten los resultados del año precedente en el cual desde el punto de vista económico Aranzadi presenta unas cuentas saneadas, sin endeudamientos, pero llevando la austeridad a sus máximos niveles. Se ha seguido trabajando en el objetivo de conseguir el apoyo directo en los presupuestos del Gobierno Vasco. Apoyo para su funcionamiento general, tal y como se realiza en los países más avanzados de Europa con respecto a su entidades científicas de referencia, y del mismo modo que lo realizan el Gobierno de España, la Diputación Foral de Gipuzkoa y el Ayuntamiento de Donostia. La novedad es que gracias al apoyo de los grupos parlamentarios y a la iniciativa del grupo socialista, por primera vez en nuestra historia se ha conseguido para 2015 una subvención destinada al funcionamiento ordinario de Aranzadi. Algo vital para que sigamos existiendo.

Es preciso remarcar la necesidad de asegurar el funcionamiento ordinario del núcleo básico de Aranzadi que está al servicio de todas las dinámicas de

Horrekin lotuta, Aranzadiren oinarriko gunearen ohiko funtzionamendua bermatu beharra dago. Izan ere, ikerketako eta natura eta giza arloetako ingurunea babes- teko dinamiken zerbitzura dago. Lan-taldeek beren fi- nantzaketa-baliabideak sor ditzaten eta hamarka dinami- ka iraunkor sor dadin oinarria da. Horrez gain, ez dugu ahaztu behar Aranzadik bokazio publikoa duela. Horren arabera, herritar guztientzako sarbide askeko eta doako- ko zerbitzuak eskaintzen ditu: liburutegia, artxibategia, webgunean zintzilikatutako argitalpenen edukiak, hitzal- diak, txangoak eta abar. .

Gainera, lehia bidez jasotako diru-laguntzak gero eta zorrotzagoak dira kontularitza eta administrazio arloko justifikazioari dagokionez. Hori dela eta, baliabide eko- nomikoen kontrola lehentasun bihurtu da estamentu publiko juridikoentzat eta erakundeek proiektu ugari-ekin lotuta egiten dituzten kontularitzako auditoriak eten- gabeak eta eskakizun handikoak dira. Errealitatea aldatu egin da eta diru-laguntzen deialdietako administrazio- klausulen konplexutasuna dela eta, horietan egin beha- rreko giza eta material mailako baliabideen inbertsioa, askotan, bideratuta dauden helburuak baino neketsua- goak izaten dira. Gaur egun, Aranzadiren administrazio -dimentsioa oso txikia da eta honako hauek osatzen dute: kontularitzako bi arduradunek, zuzendaritzako idazkari batek eta idazkari orokor batek. Dena den, azpimarratu beharrekoa da kontularitzako auditoriak salbuespenik gabe gainditu ditugula (urtero gure borondatez egiten ditugun barnekoak zein kanpokoak). Paradoxa dirudi erakunde zientifiko baten (Aranzadi, kasu honetan) ar- dura nagusietako bat administrazio eta kontularitza arlo- koak izatea gaur egun, baina zehaztu beharrekoa da Eu- ropako egungo errealitateak eta haren finantzaketa pu- blikoak esparru horietan duela eragina batez ere. Eta gure finantzaketa-iturri nagusiak horiek direla kontuan izan- da, beharrezkoa da sinesgarritasuna izatea zientzia eta kontularitza arloetan.

AZPIEGITURAREN BEHARRA

2005. urtetik lantzen ari garen beste gai bat da Donostia udalerrian Aranzadirentzako behin betiko egoitza nagu- sia izatea. Gaur egun, Zorroaga Fundazioaren jabetzakoa den pabilioian gaude eta haren alokairua 2015eko aben- duan amaituko da. Gure helburua gure jarduera guztiak herritarrei modu eragingarriagoan itzuli ahal izateko lo- kalak eskuragarri izatea da. Azpiegitura horrek, gainera, Aranzadiren dinamiketan aurrerapen kualitatiboa ekarri- ko liguke eta gurearen moduko interes soziala duten bes- te erakunde batzuekin dinamikak bateratzeko balioko liguke. Horren inguruan lanean ari gara Estatuko admi- nistrazioaren jabetzakoa den eta erabiltzen ez den higie- zinen bat eskuragarri izan dezagun.

"Ekosistema kulturala eta zientifikoa" mantendu ahal izateko, beharrezkoa da Aranzadiren moduko espezieak mantentzea, euskal gizartearen oreka naturalean fun- tsezkoak baitira.

investigación y de protección del medio natural y huma- no. Es la base para que los equipos de trabajo generen sus propios recursos de financiación y para que surjan decenas de dinámicas sostenibles. Ello sin olvidar la vocación pública de Aranzadi que se materializa en los numerosos servicios de acceso libre y gratuito para toda la ciudadanía como es su biblioteca, archivo, contenidos de las publicaciones volcados en la web, conferencias, excursiones, etc.

Además, es una realidad el hecho de que las subven- ciones recibidas de forma competitiva, sean cada vez más estrictas en materia de justificación contable y ad- ministrativa, el control de los recursos económicos se ha convertido en una prioridad para todos los estamentos públicos, las auditorías contables de las instituciones a distintos proyectos son constantes y exigentes. La rea- lidad ha cambiado y la complejidad de las cláusulas ad- ministrativas de las convocatorias de subvenciones ha- cen que la inversión de recursos humanos y materiales en las mismas sean en ocasiones más trabajosas que los fines a los cuales están destinadas. En la actualidad la dimensión administrativa de Aranzadi es mínima, y está formada por dos responsables de contabilidad, una se- cretaria de dirección y un secretario general. No obsta- nte, cabe resaltar que las auditorías contables han sido superadas sin salvedades, tanto las internas que volun- tariamente realizamos todos los años, como las externas. Puede resultar una paradoja que en estos momentos una de las principales preocupaciones de una entidad cien- tífica como Aranzadi sean los ámbitos administrativos y contables, pero es preciso señalar que la realidad actual de Europa, y de sus financiaciones públicas, inciden especialmente en estos ámbitos. Y siendo estas nuestras principales fuentes de financiación es preciso tener cre- dibilidad en los ámbitos científicos y en los ámbitos contables.

NECESIDAD DE UNA INFRAESTRUCTURA

Otro ámbito que se lleva trabajando desde el año 2005 es el de una sede central definitiva para Aranzadi en el municipio de Donostia-San Sebastián. En la actualidad nos ubicamos en un pabellón propiedad de la Fundación Zorroaga cuyo arrendamiento finaliza en diciembre de 2015. El objetivo es disponer de unos locales donde po- der revertir de una forma más efectiva todas nuestras actividades a la ciudadanía. Una infraestructura que además suponga un avance cualitativo en las dinámicas de Aranzadi y que nos sirva para aunar iniciativas con otras entidades de interés social como la nuestra. Al respecto se está trabajando con el objetivo de poder disponer de algún inmueble en desuso y propiedad de la administración del Estado.

Mantener el "ecosistema cultural y científico" pre- cisa de mantener especies como Aranzadi, fundamen- tales en el equilibrio natural de la sociedad vasca.

giza onarpena

LA SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI, ENTIDAD HOMENAJEADA EN LAS X JORNADAS CULTURALES DE HERRAMÉLLURI (LA RIOJA).

En el subsuelo de este pequeño municipio se conservan importantes restos de la ciudad de Libia que fue poblada por berones y romanos. La Asociación Socio Cultural Ciudad de Libia (ASCL), entidad cuyo principal objetivo es la puesta en valor del patrimonio cultural y medioambiental, con la que colabora Aranzadi, realiza anualmente recreaciones y actividades relacionadas con su pasado romano. En el transcurso de las mismas Aranzadi recibió un homenaje público por su labor en los campos del patrimonio y el medioambiente. Julio Bartolomé, presidente de la asociación, hace entrega a Juantxo Agirre del galardón para Aranzadi.



ARBASO SARIA ARANZADIRENTZAT

ARBASOk, Euskal Herriko Artisautza Sustatzeko Elkarteak, Artetsu Saria eman zion abenduan Aranzadiri, Gure Tradizioak Hedatzea kategorian. Ekitaldia Durangoko San Agustín Kultur Gunean ospatu zen eta Fermin Leizaola Etnografia Saileko zuzendariak saria jaso zuen saria. Honen bitartez, ARBASOk banakakoen edota entitateen lana aintzat hartu nahi du. Halaber, konpliziterako bidea eta loturak sortu nahi ditu aipaturiko artisautza apurka-apurka hazten joan dadin eta kontzientziazioa eragin dezan.



ondarea berreskuratu eta gazteentzako heziketa langabeziari aurre egiteko



Palacio Zarra de Gongora. Aranguren (Nafarroa)

Aurten ere gazte talde bat Gongorako Jauregi Zarraren berrikuntza lanetan aritu da, ekimen hauek Arangurengo Udalarekin elkarlanean gauzatzen ari dira.

Un año más un grupo de jóvenes ha participado en la recuperación de parte de los inmuebles que forman el Palacio Zarra de Gongora. Todas estas iniciativas se realizan en colaboración con el Ayuntamiento del Valle de Aranguren.



«Los recursos del Ayuntamiento tienen como objetivo el bienestar de sus vecinos, y en este sentido es prioritario ofrecer formación a los jóvenes desempleados para facilitar su inserción en el mercado laboral. Para nosotros es una oportunidad contar con una entidad como Aranzadi que, compartiendo este criterio, además recupera nuestro patrimonio».

MANOLO ROMERO, ALCALDE DEL VALLE DE ARANGUREN

recuperar el patrimonio y formar a los jóvenes para su inserción laboral



zientzia giza eskubideen esanetara

Después de años de espera los familiares de los desaparecidos en La Pedraja (Burgos), proceden a dar sepultura definitiva a los restos recuperados por el equipo de investigación de Aranzadi.



Tras dos años de investigaciones sobre lo acontecido entre los años 1936 y 1945, el Ayuntamiento de Leioa ha puesto a disposición de sus vecinos los resultados a través de una publicación monográfica en dos tomos. En el acto tomaron parte la alcaldesa Mari Carmen Urbieta y el investigador Javi Bucos, que finalizó con un reconocimiento para con aquellas personas que sufrieron la conculcación de sus derechos.



Leioako udalerrian Gerra Zibila eta Lehen Frankismoari buruzko ikerketa, bizilagun bakoitzaren aipamen zehatza arakatzuz, Bilbo Handiaren eskualdean egindako saiakera sakonena izan da. Datu guzti horiek udal eta Aranzadiren artxiboetan kontsulta daitezke.



Eztizen
Miranda.

AHANZTURAREN KONTRA

Aurreko bi urtetako nazioarteko ikerketen ondorioz emaitzak gizarteratu dira erakusketa ibiltari eta dokumental baten bitartez. Azken hau, Eztizen Mirandak zuzendutakoa, Donostiako Giza Eskubideen Zinemaldian estreinatu zen.



Hainbat erakunde ezberdinen elkarlanaren emaitza izan da honako egitasmo hau, argazkian erakunde horien ordezkariak: Euskal Fundoa, Tolosako Udala, Aranzadi, Donostiako Udala, Euskal Herriko Unibertsitatea, Hegoa, RDAS eta Gipuzkoako Foru Aldundia.

la ciencia al servicio de
los derechos humanos



aztarnen lilura

757

bolondres
voluntarios

San Adrian-Lizarrate haitzuloan aurkitutako zeramiken aurkezpena, duela lau mila urtekoak. Bertan Garazi Lopez de Etxezarreta, Kultur Ondarearen Zuzendaria GFA; Ioritz Imaz, Gipuzkoa-Araba Partzoneria; Edurne Albisu, Zegamako Alkatea; Miriam Cubas, ikerlaria, eta Blanca Gomez de Segura, Euskal Buztingintza Museoa.



Los caminos de Roma han juntado al equipo de Aranzadi, que investiga antiguas calzadas y sus yacimientos, con el MOLA, Museum of London Archaeology, de dilatada tradición en la excavación arqueológica de Londinium. En verano un equipo de arqueólogos se trasladó desde Londres hasta Auritz-Burguete donde formaron parte de la campaña arqueológica. El equipo de excavación Aranzadi-MOLA posa para la ocasión.



Taryn Nixon, directora del MOLA, firmando el convenio de colaboración con Aranzadi, en cuya representación acudió Juantxo Agirre.

13

indusketa arkeologiko
campañās
arqueológicas



En el GORDAILU de Gipuzkoa se realizó una jornada sobre la varilla decorada (magdaleniense), encontrada en la cueva prehistórica de Ezkuzta. Posteriormente en la campaña de verano se volvió a encontrar otra extraordinaria pieza. Los descubridores, miembros de Antxieta Jakintza Taldea posan con los prehistoriadores Pablo Areso, Ignacio Barandiaran, Marijose Iriarte y Alvaro Arrizabalaga.


Las vecinas y vecinos de la pequeña localidad de Larunbe (Navarra) participan entusiasmados en las labores de voluntariado que han permitido descubrir el monasterio altomedieval de Donezte-San Esteban, situado en la cima del monte Harriaundi a 931 m. de altitud.



babeslekuak

Tanto en las marismas de Urdaibai, como en los altos prados de los Pirineos o en ámbitos urbanos se investigan especies y se protegen sus hábitats.

Bai Urdaibaiko paduretan, Pirinioetako mendi larretan, edo hiriguneetan espezie ezberdinak ikertu eta beraien bizitokiak babesten ditugu.



Bufo calamita.



Orduña, Hondarribia, Lezo eta Hernaniko udal eremuetan hainbat ur putzu eraiki dira, Lezon hirigune barnean, argazkian Juantxo Agirre, idazkaria; Ainhoa Zabalo, Lezoko alkatea, eta Jon Garin, herpetologoa.



Antzarren ibilbidearen aurkezpenean hainbat erakundeen ordezkariak elkartu ziren: Bizkaiko Foru Aldundia, Gautegiz-Arteagako Udala, Espainiako Gobernuaren Ordezkaritza, Unesco Etxea, Urdaibaiko Patronatoa....



La Reserva de la Biosfera de Urdaibai será el referente para que, a través de la migración de los ánsares, surjan dinámicas entre centros medioambientales que gestionan y socializan los humedales. Una ruta desde el norte de Europa hasta el Parque Nacional de Doñana que sirva para la migración de unas aves protegidas por sociedades cada vez más concienciadas con el medioambiente.



Las estrategias de migración del género *Acrocephalus* han sido objeto de la tesis doctoral de Miren Andueza, dirigida desde el Departamento de Ornitología.



geroa bideratu, oraingo gazteak hezi



Las niñas y niños tras participar en los talleres Zero Zabor Eskolak reciben con ilusión un "boc and roll", envoltorio que les servirá para envolver adecuadamente el bocadillo de todos los días.

Umeak Zero Zabor Eskoletan parte hartu eta gero hamaitetarako "boc and roll" pozik jasotzen dute, eguneroko bokatarentzat behin eta berriz erabilgarria den poltsa.




Aduna, Asteasu eta Zizurkilgo herrietan antolatutako udako ikastaroa eta auzolaneko gazteak agintarien bisitaldi batean. Hain zuzen ere 1936. urtean udalerrri horietan lehenengo erresistentzia gunea antolatu zen, bertako herritarrentzat hain garrantzitsua izan zena. Oroimen historikoaren pasarte eta aztarna horiek ikertzen eta lantzen aritu ziren gazte hauek. Gipuzkoako Foru Aldundia, Aduna, Asteasu eta Zizurkilgo udalak, Udalbiltza, Udako Euskal Unibertsitatea eta Aranzadiko goi mailako ordezkariak bertan elkartu ziren.

227

umek parte hartu dute Txoribox
izeneko heziketa programan

227 niños y niñas
han tomado parte
con entusiasmo en
el programa
educativo Txoribox
para colocar cajas
nido. Parque Oiangu
(Ordizia).



IZARREN BEHAKETAK. Egurldiak
laguntzen duenean jende ugari
biltzen da.

Las observaciones de estrellas son
concurridas siempre y cuando la
metereología lo permite.

construyendo el futuro,
formando jóvenes





OBJETOS Y DOCUMENTACIÓN

Javier Cantera ha donado toda una colección de documentos y antiguos productos de la fábrica Niessen de Erretería, en la que trabajó durante décadas. Han sido de gran utilidad para la publicación y exposición que se organizaron con motivo del centenario de esta industria fundada en 1914. Aranzadi colaboró activamente con ABB-Niessen en los actos de dicha conmemoración.



MARGOLANAK

Juantxo Agirre eta Xabier Obeso margolana eskuartean dutela.



donaciones

Urtean zehar hainbat artelan jaso dira Aranzadin, besteak beste Javier Sagarzazuk "Cándido Saseta" gudariaren omenez egindakoa, Xabier Obeso trikuharri baten gogoeta eta Jose Ramón Urtasunek Gerra Zibilaren hobien inguruan egindakoa.



Javier Sagarzazu eta bere obra.



MARGOLANAK
Francisco Etxebarria Jose Ramon Urtasun margolariaren besarkada jasotzen.

donazioak



aurkikuntza



Luis Figuerido eta Josean Zubiriak Orioko kanpinaren ondoan daukaten lurra lantzen ari zirela aurkitu zuten pieza, ustekabea. Landuta eta leunduta zegoen harri bat zela ikusi zutenean, Aranzadi Zientzia Elkartearekin jarri ziren harremanetan eta material honen antzintasuna baieztatu zen. Aizkorak 13 zentimetroko altuera du eta 6 zentimetroko zabalera, gertuko Historiaurreko garaikoa da, 6000 eta 3000 urte inguruko kronologia duelarik. Aurkitzaileek material honen garrantzi historikoaz jabetu eta Irungo Gordailuan utzi dute, Gipuzkoako ondare arkeologiko higigarriarekin bat egin dezan.




Oria itsasadarraren paduren balioa, eta batez ere Motondo izeneko gunea, gizarteratzeko, Orioko herrian ospatutako euskararen aldeko Kilometroaren festan informazio gune bat jarri zen. Bertatik milaka pertsona pasa ziren. Herrio Natur Taldearekin elkarlanean gauzaturako ekimena izan zen.



herritarrak

ekainberri



sei urte eta gero sendotuta dagoen proiektua
un proyecto consolidado tras seis años

190.476

bisita
visitas



- 2014ko abenduak 31 arte, erreplikak 190.476 bisitari izan ditu.
- Lili jauregia 2013ko martxoak 19an inauguratu zen eta ordutik 7.993 bisitari izan ditu 2014ko abenduak 31 arte.
- Honekin, guztira 198.469 bisitari izan dira ekainberri eta Lili jauregia bisitatzen.
- Hasta el 31 de diciembre de 2014, la réplica ha tenido 190.476 Visitantes.
- El palacio Lili fue inaugurado el 19 de marzo de 2013 y desde entonces ha tenido 7.993 Visitantes hasta el 31 de diciembre de 2014.
- En total, han sido 198.469 visitantes los que han disfrutado de Ekainberri y del palacio Lili.



2014ko Ekainfest jaialdia

ekainberri



ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO ARTXIBO OROKORRA

ARCHIVO GENERAL DE LA SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI

1947. urtean eratu zenetik gaur egun arte sortarazi diren Elkartearen dokumentu-fondo guztiak gordailaturik daude Aranzadi Zientzia Elkarteko Artxibo Nagusian, baita Elkartean gordailaturiko edo dohaintza modura emandako beste fondo batzuk ere. Dokumentu horiek zaindu, antolatu, de skribatu, gorde eta ezagutzera ematea gure funtsezko zeregina da. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura Departamentuari eta Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailari esker, 2014an hainbat proiektu gauzatzen ari da Aranzadi Zientzia Elkartea.

1 • DOKUMENTAZIO-FONDOAK

ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEKO FONDOA

Artxiboko zeregin nagusia Elkartek sortarazitako dokumentazioa **katalogatzea** izan da.

Gaur egun, katalogaturiko dokumentazioa instalatzeko **690** unitate ditugu (**94 m.l.**) **6.000** espediente guztira, horietatik **320** aurtengo **2014** urte honetan bertan katalogatuak, eta horren ondorioz, dokumentazioak **6 m.l.**ko gorakada izan du.

BESTE FONDOAK

JAVI CASTRO – CANTERAS MOLERAS FONDOA

Aranzadiko Etnografia Saila Europa mailako proiektu batean parte hartzen ari da, Grenobleko (Frantzia) unibertsitatearen koordinaziopean; proiektu honek errotariaren lanbide zaharra eta errotarren harrobiak ezagutzera ematea du helburu (<http://meuliere.ish-lyon.cnrs.fr/presentation.html>), harrobi

En el Archivo General de la Sociedad de Ciencias Aranzadi se encuentran depositados los fondos documentales generados desde su creación en 1947 hasta nuestros días y otros fondos depositados o donados a la Sociedad. Es nuestra labor fundamental su custodia, organización, descripción, conservación y difusión. Gracias al departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa y al departamento de Cultura de Gobierno Vasco en 2014 se han podido realizar diversos proyectos archivísticos.

1 • FONDOS DOCUMENTALES

FONDO SOCIEDAD DE CIENCIAS ARANZADI

Una de las tareas prioritarias del Archivo es la catalogación de la documentación que Aranzadi genera día a día y se transfiere al Archivo desde el área administrativa y desde los distintos departamentos.

Hoy en día contamos con unas **690** unidades de instalación (**94 m.l.**) que contienen unos **6.000** expedientes, de los cuales **320** han sido catalogados durante este año 2014 lo que ha supuesto un incremento de aproximadamente **6 m.l.** de documentación ya catalogada y disponible para su consulta.

1.2 OTROS FONDOS

FONDO JAVI CASTRO – CANTERAS MOLERAS

El Departamento de Etnografía de Aranzadi está colaborando con un proyecto a nivel europeo, coordinado desde la Universidad de Grenoble, en Francia, (<http://meuliere.ish-lyon.cnrs.fr/presentation.html>) para poner en difusión el antiguo oficio de molero y



Dibujo sobre el trabajo del cantero.



hauek izan baitziren mende luzez errotak harriz hornitu zituztenak. Harrien edo errotarren jatorria adierazten duten datuak biltzean datza proiektu hau eta Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroa aldeko hainbat tokitako geologia ikertuz gauzatzekoa da, harri- puska handi haiek —errotak bakoitzera egokituta garraiatu baino lehen— nondik ateratzen ziren eta non lantzen zituzten *a priori* ezagutu ahal izateko.


Ikerketa hauek Etnografia Sailaren barruan aurrera ateratzeko ardura daukana gaur egun Javi Castro da; berak, harrobi bakoitzaren eremua bisitatu ondoren, dokumentuzko iturrietatik lortutako datuekin fitxa zabal bat prestatzen du, tokian tokiko hondakinei ateratako argazkiak lagun, eta, batez ere, errotarien lanbide zaharrari buruzko oroitzapenak eman dituztenei egindako elkarrizketak biltzen ditu. Ikertutako eremu bakoitzak datu berriak eskaintzen ditu; areago, bide zahar batzuk ere bazirela ondorioztatu ahal izan da, elementu arkaikoak garraiatzeko erabiliak zirenak...

2014. urtean Javi Castrok ikerketa gaitz hauen emaitzak Aranzadiko Artxiboan utziak ditu, hartaz interesatuta egon daitezkeen ikertzaile guztien esku informazio baliotsu hau jartzeko. Artxiboan utzitako dokumentazioa formatu digitalean dago eta txukun-txukun eginiko fitxak dira azpimarratzekoak, multzo grafiko zabal batez osatuak. “Javi Castro-Errotarri Harrobiak” fondoak kontsultatzeko interesa duten ikertzaile guztiek harremanetan jarri beharko dira Aranzadi Zientzia Elkartearen Artxibo zerbitzuarekin.

las canteras de piedras de molino que abastecieron durante muchos siglos a los ingenios molineros. Se trata de recopilar los datos del origen de las piedras o muelas de molino estudiando la geología de las diversas zonas de Bizkaia, Gipuzkoa, Araba y Nafarroa, para poder conocer *a priori* las áreas donde era posible extraer y trabajar las grandes rocas, para después transportarlas adaptadas a cada molino.

El actual responsable de llevar a cabo estos estudios dentro del Departamento de Etnografía es Javi Castro que, una vez visitada la zona de cada cantera, hace una extensa ficha con los datos obtenidos de las diversas fuentes documentales, con fotos de los restos existentes en el lugar y, sobre todo, una recopilación de las entrevistas efectuadas a quienes han informado sobre sus recuerdos del oficio molero. Cada zona explorada ofrece nuevos datos, incluso se llega a entender la existencia de caminos antiguos, del uso de elementos de transporte arcaicos, etc.

En el 2014 Javi Castro ha depositado en el Archivo de Aranzadi los frutos, a día de hoy, de esta ardua labor de investigación para poner a disposición de todo aquel investigador que esté interesado en esta valiosa información. La documentación depositada está en formato digital y destacan las completas fichas, complementadas con un amplio aparato gráfico. Todos aquellos investigadores interesados en la consulta del fondo “Javi Castro-Canteras moleras” deben ponerse en contacto con el servicio de Archivo de la Sociedad de Ciencias Aranzadi.



Anotación del 30 de 10 de 1942, incendio de San Miguel de Aralar.



Incendio de San Miguel de Aralar.
J.E.I.

JESÚS ELOSEGUI IRAZUSTA FONDOA

2013an Jesus Elosegui Irazusta funtsako “Egunerokoak” deituriko bilduma digitalizazioari hasiera eman zitzaion. 1914 eta 1949 urteen bitartean Aralarren egindako irteerak jasotzen dituen lehenengo egunerokoa digitalizatu zen hasteko. Ildo honi jarraipena eman zaio 2014ean, bigarren alearen digitalizatzea lortu baita.


Bigarren eguneroko honen lehenengo erre- gistroa 1942ko urriaren 30ekoa da, azkena ber- riz 1945eko abuztuaren 22koa. Elosegui fon- doan aurki daitezkeen argazkiekin kotejatu dira sarrera guztiak, eta alde zuzenetik digitali- zatuta zeuden 706 argazkiekin lotura egin da.

Elementu interesgarriak dira hasierako eta bukaerako idatzi hauek. Izan ere, lehenengoa

FONDO JESÚS ELÓSEGUI IRAZUSTA

En el 2013 se iniciaron las tareas de digitalización y cotejo con el fondo fotográfico de la serie documental que hemos denominado “Diarios” del fondo Jesús Elósegui Irazusta. Se digitalizó el primer diario de una serie relativa a salidas por Aralar realizadas por el autor entre 1914 y 1949. Y en 2014 se ha realizado la digitalización y posterior cotejo de las entradas anotadas con el fondo fotográfico del segundo de estos diarios.

La primera entrada de este segundo diario data de 30 de octubre de 1942 y la última del 22 de agosto de 1945. Se han cotejado las fechas de este diario con las fotografías ya digitalizadas del Fondo Elo- ségui obteniendo un total de 706 fotografías que se corresponden con las salidas anotadas por el autor en su cuaderno.



Última entrada del segundo diario en la que Jesús Elósegui resume la estancia en Aralar con un grupo de científicos catalanes.

Aralar: En el refugio de Igaratza. Jesús y Pedro Elósegui, Pilar Sansinenea, Reyes Corcostegui, Jose María Thomas, Francisco Español, Ramón Margalef, Joaquin Mateu, Estefania Elizalde y Manuel Laborde.

J.E.I



27 argazkiekin hornitzea lortu da, tartean Jesus Elósegui eta harekin zihozazenek San Miguel Aralakoan gertatutako sutea dokumentatu zutelako. Gertakizuna bere osotasunean ezagutzen dugu gaur, egunerokoan agertzen den deskribapena eta argazkiak berreskuratu baitira.

Bukaerako anotazioaren argazkirik ez da aurkitu ordea, baina bai egun batzuk lehenago ateratakoak. Aranzadiren sorrerarako 1945eko abuztua garrantzi handikoa izan zen, zientzialari kataluniar talde baten bisita jaso baitzuen Elósegui, aurrerago Elkartearen hazia izango litzatekeena.

En este diario podemos destacar las dos entradas correspondientes al inicio y al final del diario. Como ya hemos indicado la primera anotación está fechada a 30 de octubre de 1942 y de ese día se conserva un reportaje fotográfico de 27 imágenes. Ese mismo día Jesús Elósegui y sus acompañantes fueron testigos del incendio de San Miguel de Aralar y gracias a este diario y las fotografías de este día contamos con un completo testimonio de lo acaecido.

La anotación que cierra este diario se corresponde con el 22 de agosto de 1945, fecha de la que no se ha conservado ninguna fotografía pero sí de los días precedentes. Estas fechas son de especial importancia para la Sociedad de Ciencias Aranzadi ya que en estas fechas un grupo de científicos catalanes acude a Aralar a realizar una serie de investigaciones acompañados del grupo de Jesús Elósegui Irazusta. Este se considera el germen de Aranzadi.



2. ZERBITZUAK

KONTSULTAK

Artxibo Nagusian gordailatutako dokumentazioa izaera publikotzat jotzen da, barruko zein kanpoko kontsulten kasuan, ezarritako murrizketak izan ezik.

Aranzadi Zientzia Elkarteko Artxiboak bere fondoak eta dokumentuak kontsultatzeko zerbitzua eskaintzen du eta horretarako badu prozedura bat, Aranzadiren web gunetik erabiltzaile guztien eskura jarrita jada (www.aranzadi.eus).

Aranzadi Zientzia Elkarteko Artxibo Nagusian jasotako kontsultarik gehienak barrukoak dira, gaur egun dokumentazio orokorra administrazio-erabilerrarako baita; kanpoko eragileek gehien egiten dituzten kontsultak, berriz, argazkiei eta ondare-txostenei buruzkoak dira, eta urte urte gero eta gehiago dira mota horretako kontsultak.

2014an kontsulta gehien egin dituenen (%54) administrazio-atala izan da, atzetik hainbat sailek jarraikia portzentaje altu samarrarekin: Arkeologia Historikoa (%22), Historiaurreko arkeologia saila (%4), Botanika saila (4%) edo Herpetologia saila (4%). 2014. urtean kanpoko kontsultek %10 suposatu dute.

KOPIAK

Aranzadiren Artxibo zerbitzuak argazki-fondoan kopia eskuratzeko aukera eskaintzen dio erabiltzaileari. Kopia eskatzeko prozedura bat landu da, Aranzadin zaindutako fondoan irudiak erreproduzitzeko motak eta baldintzak bere baitan biltzen dituen. Prozedura hau dagoeneko onartuta dago eta erabiltzaileen eskura dago gure web gunean (www.aranzadi.eus).

2014an Jesus Elozegi Irazusta argazki-fondoak kopia-eskaera gehien jaso ditu. Kopia hauek hainbat erakusketatan erabili dira; esaterako, Asturiaseko Kultur Ondarearen Zuzendaritza Nagusiak San Roman Candamo kobazuloari buruz egindako erakusketan. Beste adibide bat Zumaiaiko Erkibe Kultur Elkarteak egindako erakusketa da, erbestean ibilitako Eresoinka taldeko kide izan ziren zumaiztarrak omentzeko antolatua. Bitxikeria gisa, aurten Japoniako telebista batek egin digun argazki-eskaria aipa dezakegu, euskal pilota kirolari buruzko erreportaje bat egiten ari ziren eta.

DIGITALIZAZIOA

Elkarteak ikergai dituen arloekin lotura duten gaiei buruzko argazki-fondoak digitalizatzeko zerbitzu bat jartzen du erabiltzaileen esku Aranzadi Zientzia Elkarteko Artxiboak. Artxibategiak eskaintzen duen zerbitzu hori Aranzadirekin edo gure sailetako ikerketa-esparruekin zerikusia duten argazki-fondoak dituzten erabiltzaile guztiei zuzenduta dago. Argaz-

2. SERVICIOS

CONSULTAS

La documentación depositada en el Archivo General se considera de acceso público, tanto para consultas internas como externas, salvo lo restringido por las leyes correspondientes.

El servicio de Archivo de la Sociedad de Ciencias Aranzadi ofrece la consulta de sus fondos y documentos y para ello cuenta con un procedimiento ya accesible a todos los usuarios desde la página web de Aranzadi. (www.aranzadi.eus).

La mayoría de las consultas recibidas en el Archivo General de la Sociedad de Ciencias Aranzadi son internas, correspondientes al uso administrativo de la documentación generada. Por otro lado, la mayoría de las consultas externas se corresponden con consultas de fotografías e informes de carácter patrimonial.

Las consultas recibidas en 2014 en su mayoría procedente del área administrativa (54 %) seguidas por las realizadas por otros departamentos: Arqueología Histórica (22 %), Arqueología Prehistórica (4%), Botánica (4 %) y Herpetología (4%) En 2014 las consultas externas han supuesto un 10% del total.

2.2 COPIAS

El Archivo de la Sociedad de Ciencias Aranzadi ofrece a los usuarios un servicio de obtención de copias de los fondos fotográficos. Para solicitar copias se ha realizado un procedimiento que recoge los tipos y condiciones para reproducir las imágenes de los fondos custodiados. Este procedimiento está aprobado y disponible para el usuario a través de nuestra página web (www.aranzadi.eus).

En 2014 la mayoría de las solicitudes de copias recibidas corresponden al fondo Jesús Elósegui Irazusta. Estas copias han sido utilizadas para la realización de exposiciones como las solicitadas por la Dirección General de Patrimonio Cultural de Asturias sobre la cueva San Roman Candamo. Otro ejemplo es la exposición organizada por la asociación Erkibe Kultur Elkarte de Zumaia en la que se homenajea a zumaiztarras que formaron parte del grupo Eresoinka en el exilio. Como curiosidad este año hemos recibido una solicitud de fotografías referentes al juego de pelota procedente de una televisión japonesa que estaba realizando un reportaje sobre pelota vasca.

DIGITALIZACIÓN

La Sociedad pone a disposición de los usuarios un servicio de digitalización de fondos fotográficos relacionados con las distintas áreas de investigación de Aranzadi. El servicio de Archivo está

kiak digitalizatzeko interesa dutenek aukera hauek dituzte: argazkiak aldi baterako utz ditzakete artxibategian edo Aranzadi Zientzia Elkarteko Artxibategiari eman diezazkiokete, hark zaindu eta babestu ditzan. Edozein aukera hautatuta ere, interesdunak digitalizatutako materialaren kopia digitala eta materialari dagokion inbentarioa jasoko ditu.

En lo que se refiere al **Balance de Situación** a 31 de Diciembre de 2013, el beneficio obtenido en 2013 pasará a incrementar el valor los fondos propios, y que en 2012 sufrieron la importante pérdida de 50.828,45€ . A la fecha de 31 de diciembre de 2013 el valor de estos fondos propios era de 387.267,58 €, un 6,36% superior al valor del ejercicio anterior. La partida correspondiente al Activo tiene un valor de 7,34 millones de euros. El Activo no corriente, por importe de 5,08 millones de euros lo conforma en su mayor parte la partida de inmovilizado del Urdaibai Bird Center en Gautegiz-Arteaga (Bizkaia) y la rehabilitación del Palacio Zarra de Góngora (Navarra). En lo que se refiere al Activo no corriente, la partida de "clientes" (1,38 millones de euros) y el "efectivo y otros activos líquidos", por valor de más de 890.000 € son los importes más significativos. En el apartado del Patrimonio Neto y Pasivo, con algo más de 6 millones de euros, corresponden a las subvenciones para la financiación del inmovilizado y los proyectos pendientes de ejecutar, así como la valoración de la cesión de uso de la sede de Leioa (Bizkaia) .En último lugar, en el apartado del pasivo y dentro del pasivo no corriente, el importe correspondiente al préstamo hipotecario obtenido para la adquisición y posterior rehabilitación del Palacio Zarra de Góngora es de 193.854,76€, mientras que las periodificaciones a largo plazo se incrementaron un 3% sobre el ejercicio 2012, hasta alcanzar los 258.853,37€ En el pasivo corriente (846.609,21€) , las partidas más significativas las forman los acreedores, con un valor de 332.602,50€ y las periodificaciones a corto plazo, por un importe de algo más de 509.000€.

2013 GALDU-IRABAZI KONTUAK / CUENTA DE PÉRDIDAS Y GANANCIAS 2013

(Debe) Haber

1	Bazkide kuotak <i>Cuotas de socio</i>	77.965,50 €
2	Salmenten zenbateko garbia <i>Importe neto de la cifra de negocios</i>	1.098.912,33 €
3	Enpresak aktiborako egindako lanak <i>Trabajos realizados por la empresa para su activo</i>	7.381,15 €
4	Zuzkidurak <i>Aprovisionamientos</i>	-38.163,15 €
5	Beste ustiapen sarrerak <i>Otros ingresos de explotación</i>	1.203.303,27 €
6	Langile gastuak <i>Gastos de personal</i>	-1.294.523,64 €
7	Beste ustiapen gastuak <i>Otros gastos de explotación</i>	-1.006.698,81 €
8	Ibilgetuaren amortizazioa <i>Amortización de inmovilizado</i>	-252.649,49 €
9	Finantziario ez den ibilgetu kapital dirulaguntzak egozketa <i>Imputación de subvenciones de inmovilizado no financiero</i>	234.224,8 €
12	Beste emaitzak <i>Otros resultados</i>	1.093,22 €
A) USTIAPEN EMAITZA RESULTADO DE EXPLOTACIÓN		30.845,26 €
13	Finantza dirusarrerak <i>Ingresos financieros</i>	20,95 €
14	Finantza gastuak <i>Gastos financieros</i>	-11.349,11 €
15	Truke aldaketa <i>Diferencia en cambio</i>	0,24 €
16	Finantza tresna salmenta emaitza eta narriadura <i>Deterioro y resultado por enajenación de instrum. financieros</i>	3.654,01 €
B) FINANTZA EMAITZA RESULTADO FINANCIERO		-7.673,91 €
C) ZERGAK AURRETIKO EMAITZA RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS		23.171,35 €
D) URTEKO EMAITZA (MOZKINA) RESULTADO DEL EJERCICIO (BENEFICIO)		23.171,35 €

2013 URTEKO ITXIERA BALANTZEA // BALANCE AL CIERRE DEL EJERCICIO 2013

AKTIBOA / ACTIVO	
A) AKTIBO EZ ARRUNTA / ACTIVO NO CORRIENTE	
	5.079.812,40 €
I. Ibilgetu ez materiala / <i>Inmovilizado intangible</i>	236.267,27 €
II. Ibilgetu materiala / <i>Inmovilizado material</i>	4.766.539,13 €
IV. Taldeko enpresetan inbertsioak epe luzerako <i>Inversiones en empresas del grupo a largo plazo</i>	77.006,00 €
B) AKTIBO ARRUNTA / ACTIVO CORRIENTE	
	2.295.054,30 €
II. Zordun komertzialak eta kobratzeko beste kontuak <i>Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar</i>	1.382.692,52 €
IV. Epe motzerako finantza inbertsioak <i>Inversiones financieras a corto plazo</i>	12.978,59 €
V. Epe motzerako periodifikatzeak / <i>Periodificaciones a corto plazo</i>	9.031,87 €
VI. Eskudirua eta aktibo likidoak / <i>Efectivo y otros activos líquidos</i>	890.351,32 €
GUZTIRA AKTIBOA / TOTAL ACTIVO (A+B)	
	7.374.866,70 €
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA / PATRIMONIO NETO Y PASIVO	
A) ONDARE GARBIA / PATRIMONIO NETO	
	6.075.549,36 €
A-1) Berezko Fondoak / <i>Fondos propios</i>	387.267,58 €
I. Kapitala / <i>Capital</i>	364.096,23 €
VII. Urteko emaitza / <i>Resultado del ejercicio</i>	23.171,35 €
A-2) Jasotako dirulaguntzak, emateak eta legatuak <i>Subvenciones, donaciones y legados recibidos</i>	5.688.281,78 €
B) PASIBO EZ ARRUNTA / PASIVO NO CORRIENTE	
	452.708,13 €
II. Epe luzerako zorrak / <i>Deudas a largo plazo</i>	193.854,76 €
V. Epe luzerako periodifikatzeak / <i>Periodificaciones a largo plazo</i>	258.853,37 €
C) PASIBO ARRUNTA / PASIVO CORRIENTE	
	846.609,21 €
II. Epe motzerako zorrak / <i>Deudas a corto plazo</i>	4.698,48 €
IV. Hartzekodun komertzialak / <i>Acreedores comerciales a pagar</i>	332.602,50 €
V. Epe motzerako periodifikatzeak / <i>Periodificaciones a corto plazo</i>	509.308,23 €
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA (A+B+C)	
	7.374.866,70 €
TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO	



2014. URTEKO TXOSTEN EKONOMIKOA

INFORME ECONÓMICO 2014

Aranzadiana aldizkari honetan, aurreko edizioetan bezala, Aranzadi Zientzia Elkartearen behin-behineko urteko kontuak aurkezten dizkizuegu, oraingoan 2014. urteari dagozkionak. Luis Javier Salaberria Atorrasagasti eta Iñaki Uzcudun Guruceaga auditore jaunak arduratzen ari dira dagokion auditoretza-txostena idatziz jartzeaz. Beste urte batez, bazkideak izango dira 2015eko apirilaren 15eko Biltzarrean 2014ko kontu hauek onartuko dituztenak, eta dagokion auditoretza-txostenarekin batera, Elkartearen web gunean (www.aranzadi.eus) eta Aranzadiana aldizkari honen hurrengo edizioan plazaratuko dira.

2014. urtea 10.729,97 €-ko superabit batekin itxi da behin-behineko izaeraz. Aurreko ekitaldia (2013) emaitza ekonomiko positiboarekin ere amaitu ondoren, azken bi urte hauetan lortu dugun superabita 2012. urtean sortu zen galera (50.828,45 €) konpentsatu egin du neurri batean, Elkartearen ohiko gastuen parte bat finantzatzeko Hezkuntza Ministerioak ematen zigun dirulaguntza izenduna ez baikenuen jaso. Azken urte hauetan, eta krisi ekonomikoaren ondorioz, Aranzadi Zientzia Elkarteak gastuak eta sarrerak kontrolpean izateko zegozkion neurri zuzentzaileak hartuta zeuzkan, eta **Hezkuntza Ministerioaren** dirulaguntza izenduna jaso izanak ahalbidetu digu azken bi ekitaldi hauek superabitarekin bukatzea. Elkartearen ohiko gastuak finantzatzeko dirulaguntza honi gehitu behar zaio 2014 honetan **Donostiako Udalaren** dirulaguntza (25.000 €), **Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura departamentuaren** ohiko dirulaguntzaz gain (liburutegia, artxiboa, dokumentuzko fondo digitalizazioa, Zorroagako egoitzaren alokairua, Munibe aldizkaria, e.a.). Foru erakunde honek, Aranzadik egiten dituen ekintzen eta Gipuzkoako gizarteari ematen dion baliabideen ezagutzaileria izanda, eguneko funtzionamendurako 50.000ko dirulaguntza eman zuen. 2014 urte honetan, Hezkuntza Ministerioaren dirulaguntza 50.000 €-koa izan da, 2013an jasotakoa baino % 23 txikiagoa. Aranzadi Zientzia Elkartearen 2014an garatutako jardueren eta proiektuen dinamikari eusteko gai izan da, azken urteetan krisiaren ondorioak jasotzen bagabiltza ere. Fakturazioagatik eta dirulaguntzengatik sarreren bolumena ozta-ozta murriztu da % 1, 2013. urtearekin alderatuta. Fakturazioa iaz baino % 23

En esta revista Aranzadiana, al igual que se ha realizado en ediciones anteriores, se presentan las cuentas anuales provisionales de la Sociedad de Ciencias Aranzadi, en esta ocasión las correspondientes al ejercicio 2014. Los auditores Luis Javier Salaberria Atorrasagasti e Iñaki Uzcudun Guruceaga se están encargando de redactar el correspondiente informe de auditoría. Un año más, serán los socios quienes en la Asamblea de 15 de abril de 2015 aprueben estas cuentas del año 2014 y junto con el informe de auditoría correspondiente, serán publicadas en la página web de la Sociedad (www.aranzadi.eus), y en la próxima edición de esta revista Aranzadiana.

El ejercicio 2014 se cierra provisionalmente con un superávit de 10.729,97€. Después de finalizar el ejercicio anterior (2013) también con resultado económico positivo, el superávit obtenido estos dos últimos años compensa en parte la pérdida generada el año 2012 que ascendió a de 50.828,45 €, año en el que no se obtuvo la subvención nominativa del Ministerio de Educación para la financiación de parte de los gastos corrientes de la Sociedad. En estos últimos años, y debido a la crisis económica, la Sociedad de Ciencias Aranzadi ya había tomado las pertinentes medidas correctoras en cuanto al control de gastos e ingresos, y la concesión de la subvención nominativa del **Ministerio de Educación** ha hecho posible que estos dos últimos ejercicios se hayan podido terminar con superávit. A esta ayuda para la financiación de gastos ordinarios de la Sociedad se le suma este año 2014 la subvención del **Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián** (25.000 €), además de la habitual subvención del **departamento de Cultura de la Diputación Foral de Gipuzkoa** (biblioteca, archivo, digitalización de fondos documentales, alquiler de la sede de Zorroaga, revista Munibe, etc). Este ente foral, conocedor de las actividades de Aranzadi y lo que reporta a la sociedad gipuzkoana, aportó la cantidad de 50.000€ para su funcionamiento ordinario. Este año 2014, la subvención del Ministerio de Educación ha sido por importe de 50.000€, un 23% inferior a la recibida en 2013. La Sociedad de Ciencias Aranzadi ha sido capaz de mantener su dinámica de actividades y proyectos desarrollados en el 2014, pese a que todavía estamos soportando la crisis de los últimos años. El volumen de ingresos por facturación y subvenciones apenas se ha reducido un 1% con respecto al año 2013. La facturación ha sido un 23% inferior al año anterior, pero esta caída se ha visto compensada con el incremento de las subvenciones, más de un 20%, hasta alcan-

txikiagoa izan da, baina beherakada hau dirulaguntzen gorakadarekin (% 20tik gorakoa) konpentsatu egin da, 1,5 milioi euroko diru-zenbatekoa erdietsi arte. Bazkideen kuotengatiko diru-sarrerek ere gora egin dute 2014an, 79.594,50 €-koak izan arte; horrenbestez, bazkideek kudeaketari ematen dioten babes beste urte batez berretsita geratu da. Gastuen atalean ahalegin handia egiten jarraitu da ohiko gastuei eutsi nahian (berokuntza, argia, telefonoa, mantenimendu informatikoa, e.a.). Berririo ere "pertsonal gastuak" partida izan da kopuru aldetik esanguratsuen, 1,44 milioi euroekin. 2014. urte honetan 88 pertsona izan dira ekitaldian zehar Elkartearekin lan-kontratu bat izan dutenak. 88 pertsona hauetatik 66 ikertzaileak dira gehienbat, eta horrez gain, liburutegia, artxiboa, administrazioa, dibulgazio-zerbitzuak, e.a., bai Donostiako egoitzakoak bai Gautegiz-Arteagako Urdaibai Bird Centerrekoak. Bizkaiko zentro honetan, hain zuzen, 18 pertsona izan dira kontratatu direnak, 3 bekadun barne (horietako bi BBK Fundazioak finantzatuak). Gainerako 22 pertsonak "Arangurengo Enplegu Lantegi-Eskola" garatzeko kontratatu dira, Nafarroako Enplegu-Zerbitzuak eta Arangurengo Udalak finantzatuta. Eskola bukatuta, ikasle hauetako 10, hezitzaile batekin batera, berririo kontratatu ditu Elkarteak, hiru hilabeterako, Gongorako Jauregi Zarra birgaitzeko lanekin aurrera jarrai dezaten. 2014 urte honetan, pertsonal gastuen partida hau iazkoa baino % 12 handiagoa izan da. Gainerako gastu-partida garrantzitsuak honako hauek dira: ustiatze-gastuak (915.000 €-tik gora), hornidurak eta amortizazioak (236.000 €-ko finantza-gastuekin, bai kasu batean bai bestean). Azkenik, finantza-gastuek ere behera egin dute, kasu honetan % 4, 2013koekin alderatuta.

Egoeraren Balantzean, 2014ko abenduaren 31ra artekoan, aktiboak 7,06 milioi euroko balioa daukala ikus dezakegu. Aktibo ez-arrunta ibilgetu materialak osatzen du gehienbat, ia-ia 4,89 milioi eurokoa izanik, non jasota baitago Gongorako "Jauregi Zarra"ren balioa, eta Gautegiz-Arteagako Urdaibai Bird Centerrena. Aktibo arruntan, 1,89 milioi eurokoa berau, partidarik esanguratsuenak "Bezeroak" (1,32 milioi euro) eta Eskudirua eta Aktibo Likidoak (552.000 €-tik gorakoa) deritzonak dira. Ondare Garbia eta Pasiboa atalean, ondare garbiaren balioa 5,62 milioi eurokoa da, non jasota baitaude berezko fondoak, ia-ia 400.000 €-koak. Bai ibilgetua bai geroko urteetan exekutatu beharreko proiektuak finantzatzeko lortutako dirulaguntzek 5,22 milioi euroko balioa dute. Pasibo ez-arrunta, berriz, 184.605,22 €-ko hipotekamaileguaren saldoak (Gongorako Zarra jauregia) eta epe luzeko periodifikazioek (266.767,26 €) osatzen dute. Azkenik, hartzekodunen partidek (533.707,08 €) eta epe laburreko periodifikazioek (452.839,59 €) Pasibo Arrunta osatzen dute.

zar este año más de 1,5 millones de euros. Los ingresos por cuotas de socios se han incrementado también en 2014, hasta los 79.594,50€ ratificando, una año más, el apoyo que ofrecen los socios a la gestión realizada. En el apartado de gastos se ha seguido manteniendo un importante esfuerzo en la contención de gastos ordinarios (calefacción, luz, teléfono, mantenimiento informático, etc). De nuevo es la partida de "gastos de personal" la de cuantía más significativa, con un total de 1,44 millones de euros. Este año 2014 han sido 88 las personas que han tenido un contrato laboral con la Sociedad a lo largo del ejercicio. De estas 88 personas, 66 de ellas corresponden en su mayor parte a investigadores, además de los servicios de biblioteca, archivo, administración, divulgación, etc, tanto en la sede de Donostia, como en el Urdaibai Bird Center de Gautegiz-Arteaga. Concretamente en este centro de Bizkaia han sido 18 las personas contratadas, incluidos 3 becarios (dos de ellos financiados por BBK Fundazioa). Las otras 22 personas contratadas lo han sido para desarrollar la "Escuela taller de empleo de Aranguren", financiada por el Servicio Navarro de Empleo y el Ayuntamiento del Valle de Aranguren. Finalizada la escuela, 10 de estos alumnos, junto con uno de los educadores, han sido contratados de nuevo por la Sociedad, durante un período de tres meses, para continuar con los trabajos de rehabilitación del Palacio Zarra de Gongora. Este año 2014 el importe de esta partida de gastos de personal ha sido un 12% superior al año anterior. Las otras partidas importantes de gasto la forman los gastos de explotación con algo más 915.000€, los aprovisionamientos y amortizaciones, con un gasto aproximado de 236.000€ en ambos casos. Por último, los gastos financieros se han reducido también, en este caso un 4%, con respecto al 2013.

En el **Balance de Situación** a 31 de Diciembre de 2014, podemos observar que el activo tiene un valor de 7,06 millones de euros. El Activo no corriente está formado en su mayor parte por el inmovilizado material, por valor de casi 4,89 millones de euros donde se refleja el valor del "Palacio Zarra" de Gongora, y el Urdaibai Bird Center de Gautegiz-Arteaga. En el Activo corriente, por valor de 1,89 millones de euros, las partida más significativas corresponden a los "Clientes" (1,32 millones de euros) y Efectivo y Activos Líquidos, por valor de algo más de 552.000 €. En el apartado Patrimonio Neto y Pasivo, el valor del patrimonio neto es de 5,62 millones de euros, donde constan los fondos propios con un valor cercano a los 400.000 €. Las subvenciones obtenidas para financiar tanto el inmovilizado como los proyectos a ejecutar en años posteriores tienen un valor de 5,22 millones de euros. El pasivo no corriente lo conforma el saldo del préstamo hipotecario (palacio Zarra Gongora) por valor de 184.605,22 €, y las periodificaciones a largo plazo (266.767,26€). Por último, el Pasivo Corriente, lo forman las partidas de acreedores 533.707,08€, así como las periodificaciones a corto plazo, por valor de 452.839,59€.

		(Debe) Haber
1	Bazkide kuotak <i>Cuotas de socio</i>	79.594,50 €
2	Salmenten zenbateko garbia <i>Importe neto de la cifra de negocios</i>	849.823,25 €
3	Enpresak aktiborako egindako lanak <i>Trabajos realizados por la empresa para su activo</i>	182.438,90 €
4	Zuzkidurak <i>Aprovisionamientos</i>	-236.096,55 €
5	Beste ustiapen sarrerak <i>Otros ingresos de explotación</i>	1.516.942,51 €
6	Langile gastuak <i>Gastos de personal</i>	-1.444.686,76 €
7	Beste ustiapen gastuak <i>Otros gastos de explotación</i>	-915.617,21 €
8	Ibilgetuaren amortizazioa <i>Amortización de inmovilizado</i>	-237.341,43 €
9	Finantziario ez den ibilgetu kapital dirulaguntzak egozketa <i>Imputación de subvenciones de inmovilizado no financiero</i>	223.583,80 €
A) USTIAPEN EMAITZA RESULTADO DE EXPLOTACIÓN		18.641,01 €
13	Finantza dirusarrerak <i>Ingresos financieros</i>	2,96 €
14	Finantza gastuak <i>Gastos financieros</i>	-10.914,42 €
16	Finantza tresna salmenta emaitza eta narriadura <i>Deterioro y resultado por enajenación de instrum. financieros</i>	3.000,4 €
B) FINANTZA EMAITZA RESULTADO FINANCIERO		-7.911,04 €
C) ZERGAK AURRETIKO EMAITZA RESULTADO ANTES DE IMPUESTOS		10.729,97 €
D) URTEKO EMAITZA (MOZKINA) RESULTADO DEL EJERCICIO (BENEFICIO)		10.729,97 €

* Behin behineko datuak, auditoria txostenaren aurretik / Datos provisionales, previos al informe de auditoría.

* Behin betiko datuak, auditatuak eta Batzarrak onartu ondoren, web orrian azalduko dira / Los datos definitivos, una vez auditados y aprobados por la Asamblea, se publicarán en la página web.

AKTIBOA / ACTIVO	
A) AKTIBO EZ ARRUNTA / ACTIVO NO CORRIENTE	5.169.869,39 €
I. Ibilgetu ez materiala / <i>Inmovilizado intangible</i>	204.743,97 €
II. Ibilgetu materiala / <i>Inmovilizado material</i>	4.888.119,42 €
IV. Taldeko enpresetan inbertsioak epe luzerako <i>Inversiones en empresas del grupo a largo plazo</i>	77.006,00 €
B) AKTIBO ARRUNTA / ACTIVO CORRIENTE	1.893.246,13 €
II. Zordun komertzialak eta kobratzeko beste kontuak <i>Deudores comerciales y otras cuentas a cobrar</i>	1.326.827,16 €
IV. Epe motzerako finantza inbertsioak <i>Inversiones financieras a corto plazo</i>	3.500,47 €
V. Epe motzerako periodifikatzeak / <i>Periodificaciones a corto plazo</i>	10.648,72 €
VI. Eskudirua eta aktibo likidoak / <i>Efectivo y otros activos líquidos</i>	552.269,78 €
GUZTIRA AKTIBOA / TOTAL ACTIVO (A+B)	7.063.115,52 €
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA / PATRIMONIO NETO Y PASIVO	
A) ONDARE GARBIA / PATRIMONIO NETO	5.620.497,89 €
A-1) Berezko Fondoak / <i>Fondos propios</i>	397.997,55 €
I. Kapitala / <i>Capital</i>	387.267,58 €
VII. Urteko emaitza / <i>Resultado del ejercicio</i>	10.729,97 €
A-2) Jasotako dirulaguntzak, emateak eta legatuak <i>Subvenciones, donaciones y legados recibidos</i>	5.222.500,34 €
B) PASIBO EZ ARRUNTA / PASIVO NO CORRIENTE	451.372,48 €
II. Epe luzerako zorrak / <i>Deudas a largo plazo</i>	184.605,22 €
V. Epe luzerako periodifikatzeak / <i>Periodificaciones a largo plazo</i>	266.767,26 €
C) PASIBO ARRUNTA / PASIVO CORRIENTE	991.245,15 €
II. Epe motzerako zorrak / <i>Deudas a corto plazo</i>	4.698,48 €
IV. Hartzekodun komertzialak / <i>Acreedores comerciales a pagar</i>	533.707,08 €
V. Epe motzerako periodifikatzeak / <i>Periodificaciones a corto plazo</i>	452.839,59 €
ONDARE GARBIA ETA PASIBOA (A+B+C)	7.063.115,52 €
TOTAL PATRIMONIO NETO Y PASIVO	

* Behin behineko datuak, auditoria txostenaren aurretik / Datos provisionales, previos al informe de auditoría.

* Behin betiko datuak, auditatuak eta Batzarrak onartu ondoren, web orrian azalduko dira / Los datos definitivos, una vez auditados y aprobados por la Asamblea, se publicarán en la página web.

«GURE INGURUNE NATURALA BABESTEKO LEHENIK EZAGUTU EGIN BEHAR DUGU»

[MIKEL EDESO]

Biologia ikasi zenuen Leioan eta ikerlaria izan zara ondoren. Nola bizi duzu ikerkuntza arlotik politikara salto egitea?

Ingurumen arloan identifikatutako arazoei aurre egiteko aukera moduan bizi izan dut politika arloan lan egindako fase hau.

“Politiko guztiak soberan daude” entzuten dugu egunero kalean, baina politikarik gabe etorkizunik ez dagoela errealitate bat da. Zu politikaria sentitzen al zara?

Politikak gizartearen errealitatea eta hainbat behar azaleratzeko eta kudeatzeko helburua izan behar du. Gaur egun politika desprestigiatuta badago horretan diharduen jende askok beste interes batzuk lehenesten dituelako da. Hala ere, ez dut bat egiten jarrera pasiboan eta delegatuan kokatzen den eta “denak berdinak” direla dioen diskurtsoarekin; us-te dut bakoitzari ere badagokiola bizitzako esparru guztietan jarrera aktiboa eta kritikoa izatea. Gizartean aldaketa eragiteko asmoz gabiltza politikan.

Instituzioetatik zer nolako ekarpenak lor ditzakegu gure natura zaintzeko?

Instituzioek baliabide ekonomiko, teknikoak eta erabakitze guneak dituzte natura arloko politikak bideratzeko eta lehenesteko. Nire ikuspegitik, naturaren babeserako benetako politikak garatzeko, instituzioek dituzten tresna guztiak erabili behar dituzte. Baina, era berean, gizartearentzat ere lehentasunezko gaia izan behar du, instituzioen inplikazio etengabea exijituz; *feedback* bat egon behar du.

Naturaren alde egitea zer da: gure mendietan dauden espezie mehatxatuen ikerketa eta babesa bermatzea edo gure etxeko zaborren kudeaketa egokia egitea?

Gizakiaren jarduerak sortarazitako ingurugiro al-daketa sakonaren eraginez daude bereziki espezie eta habitatak mehatxatuta eta ondorioz, urgentziazkoa da gure natur baliabideen kudeaketa egokia egitea. Gure etxeko hondakinak baliabideak dira eta eguneroko jardueran ohitura aldaketa batzuk eginda, gure naturaren babesaren alde egin dezakegu guztiok.



«Naturaren babeserako benetako politikak garatzeko, instituzioek dituzten tresna guztiak erabili behar dituzte. Baina, era berean, gizartearentzat ere lehentasunezko gaia izan behar du, instituzioen inplikazio etengabea exijituz; *feedback* bat egon behar du»



Motondoko hezegunea (Orio).

Amaitzear dagoen legealdi honetan, Gipuzkoako Foru Aldundiaren Ingurumen saileko ildo estrategikoak zeintzuk izan dira?

Laburbilduz, Zero Zabor filosofian oinarrituta, ingurumena, osasuna eta ikuspegi ekonomikoa aintzat hartzen dituen hondakinen kudeaketa iraunkorra bideratzea, batetik. Bestetik, sistema energetiko iraunkor bateranzko trantsizioa errazteko oinarriak jartzea, "Gipuzkoa Energia Foru Planaren" bidez, eta eskualde bakoitzeko administrazio eta eragileekin plana partekatzea. Eta azkenik, ibaien ur kalitatea hobetzeko herrietako ur hornidura eta saneamendu obrak egin eta ibai arroen hidromorfologia, eta biodibertsitatea hobetzeko azterketa eta berreskurapen lanak egitea.

Ingurumena eta espezieen eta parkeen kudeaketa bi sail desberdinetan banatzea egokia iruditzen zaizu?

Ur ekosistemen berreskurapenerako plangintza eta ekintza konpartituak burutu dira zuzendaritzen artean, baina nire ustez egokiagoa litzateke aipatzen dituzun arloak departamentu berean egotea.

Usurbilgo Saria padura berreskuratu da, baina Motondo geldiuene batean dago. Gipuzkoako hezeguneen egungo egoera zein da? Natura 2000k markatzen dituen irizpideak bermatzen dira?

Motondoko hezegunearen berreskurapena Aranzadi Zientzia Elkartearen proiektuan oinarrituta

«Berrerabili edo birziklatu daitezkeen materialak erre edo botatzeak ez du inongo zentzurik»

egiteko aukera mahai gainean jarri genuen. Orioko Udal Gobernuak alderdi nagusiak, ordea, ez zuen gutxieneko babesarekin lortu proiektua aurrera ateratzeko. Lur publikoak etxebizitza, poligono industrial edo kirol instalazioak eraikitzeko erabiltzeko babes soziala izaten du, baina ez hainbeste, Sariako paduraren kasuan bezala, herriko ondare naturalaren kontserbaziorako. Lur pribatuen kasua konplexuagoa da, espekulaziorako aukera sortzen delako. Dinamika hauen ondorioz, hezegune eta ibai arroen egoera asko dago hobetzeke.

Natura 2000 dagokionez, Kontserbazio Bereziko Eremu izendatutako ibai eta estuarioetan oraindik burutzeko falta diren ekintzen balorazio ekonomikoa 30 milioi eurokoa da. Administrazio ezberdinen hurrengo urteetako bete beharra izango da.

2014 hasieran denborale handiak Kostaldeko dunak bortizki kaltetu zituen. Nola baloratzen duzu egoerari buelta emateko Aldundiak egindako lana? Zein da gaur egungo egoera?

Hondarribia, Orio eta Debako duntetan denboraleak ez du eragin nabarmenik izan, baina bai Zarauzko Inurritzako dunan. Duna honen berreskurapenerako Europako Life proiektu bat lortu berri da.



Zero Zabor Eskolak bi urte daramatza Gipuzkoako eskoletan hondakinen kudeaketa zuzena irakasten.

Gure gizarte garatuen zaborraren kudeaketa arazo bihurtu da. Geroz eta hondakin gehiago sortzen ditugu eta horiek prozesatzeko ikuspuntu kontrajarriak daude. Eztabaida sutsuak pizteko garrantzi haina al du gai honek? Zein da zure iritzi pertsonala?

Lehenik, sortzen dugun hondakin mota eta hauek nola kudeatzen ditugun gure gizarte ereduaren ispilulu edo adierazle argia dira. Berrerabili edo birziklatu daitezkeen materialak erre edo botatzeak ez du inongo zentzurik. Horrez gain, orain arte, zenbat eta zabor gehiago sortu orduan eta etekin ekonomiko handiagoa zenbait sektore pribaturentzat eta udalarentzat, aldiz, orduan eta garestiagoa.

Agintaldi honetan hondakinen eztabaida deliberratu higidura politikoa eragiteko arma moduan erabili da ikuspegi teknikoa guztiz alboratuta. Horretarako, makineria guztia egon da martxan eta bereziki aipatuko nituzke hondakinen kudeaketarako azpiegituren eraikuntza egiteko jarritako oztopo politikoa eta administratiboak eta zenbait komunikabideen bidez egindako manipulazioa.

Beste lurraldeetan harridura apur batekin begiratzeko gaituzte gipuzkoarroi, ulergaitza egiten zaielako horrelako gaiari garrantzia ematea. Iruñerrian edo Bilbo Handian nolakoa da zaborraren gestioa?

Gipuzkoan arazoa azaleratu egin da, eta hondakinen prebentzioan, berrerabilpenean eta birziklapenean oinarritutako kudeaketa ereduaren bidez aurreratu egin diezaiokegula agerian geratu da. Bilboko hondakinen gehiengoa erre egiten da Zabalgarbin eta prozesuan sortutako zepa eta errauts toxikoak zabortegetan isurtzen dituzte. Azkenik, Nafarroako Justizia Auzitegi Nagusiak baliogabetu egin du Nafarroako Hondakinen Kudeaketarako Plan Integratua. Izan ere, planak proposatutako errauste



«Energiarekin lotutako guztia agendan sartu behar dugu, sentsibilizazioa egin behar dugu, eztabaida bultzatu behar dugu, funtsezko gaia da-eta»

planten moduko azpiegiturak ezin dira ekimen pribatuen esku utzi, eta kokapen eta eraginei buruzko informazio nahikorik ere ez zegoen.

Gipuzkoako Foru Aldundiak, Aranzadik, Kristau Eskolek, eta Ikastolen Elkarteak sustatu zuten Zero Zabor Eskolak programa martxan jarraitzen du. Zein da ekimen honen ekarpena? Irakasle eta ikasleen harrerari positiboa deritzozu?

Zero Zabor Eskola programak hondakinen sorrera murriztu daitekeela eta selektiboki banatzean baliabide bihurtzen direla irakasten du. Sentsibilizazioa egiteaz gain, aukera pedagogiko handiak ditu. Materia organikoaren konpostaje prozesuak, adibidez, ikuspegi biologiko, kimiko eta matematiko batetik aztertu eta ikasteko aukera paregabea eskaintzen du. Bestalde, programak harrera positiboa izan du eta horren adierazle eskolen aldetik eskaria handitu izana da.

Gipuzkoan errauskailua baztertzeak zer suposatzen du? Zestoako instalazioa alternatiba al da?

2014an errauskailua eraikita balego 90.000 tona hondakin kanpotik ekarri beharko genituzke edo udalek ordaindu beharko lukete tasen bidez. Ikuspegi ekonomikotik, 500 milioi €ko aurrekontua zuen azpiegitura plangintza batetik 250 milioi €ko batera igaro gara. 2007-2014 urteen artean zabortegetara isuritako hondakin kopurua %40 jaitsi da



Jaizkibelen ondare natural eta kulturalarik buruzko sinposioaren aurkezpena (2012). Hurrenez hurren, Amaia Agirregabiria Pasaiaiko alkatea; Juan Arizaga, Aranzadi; Ainhoa Iraola Gipuzkoako Foru Aldundiko Ingurumen eta Obra Hidraulikoetako zuzendaria; Ainhoa Zabala Lezoko alkatea eta Txomin Sagarzazu Hondarribiko kultura zinegotzia.

eta azken bost urteetan birziklapen maila bikoiztu dugu. Oraindik ere zabortegietara isurtzen ditugun hondakinen %80 birziklagarria da, eta beraz, Europak markatzen dituen helburuak betetzen baditugu, errauskailua ez da inoiz bideragarria izango.

Errauskailuaren alternatiba prebentzioa, berreskuratzea eta birziklapena dira. Zestoako instalazioa errauskailuak sortzen dituen zepa eta errauts toxikoen zabortegiaren eta Gipuzkoan hamarkadetan izan ditugun zabortegi kutsakorren alternatiba da.

Aranzadik eta Lezo, Hondarribia eta Pasaiaiko udalek Jaizkibeli buruzko Jardunaldi zientifikoa eta monografikoa bultzatu dute. Honelako ekimenen garrantzia zein da?

Gure ingurune naturala babesteko lehenik ezagutu egin behar dugu eta beraz jardunaldi mota hauek garrantzitsuak dira.

Superportuaren inguruan, Aranzadi Zientzia Elkarteak ez du inongo irizpide ofiziala plazaratu. Auzolanez egindako ikerketen emaitzak gizarteratu eta agente publikoen esku utzi ditu, azpiegitura honen eraikuntza balora dezaten. Dena den, afera bazterturik dagoela dirudi. Krisi ekonomikoak gelditu du edo horren inguruan zeuden kontrako jarrerak oztopo izan dira?

Makro-proiektu zentralizatuarekin gertatu ohi den moduan, Pasaiaiko kanpo portuaren proiektua gain dimentsionatuta zegoen, eragin handia zuen ingurumenean eta zor ekonomiko handia zekarrien administrazio publikoei. Horrez gain, proiektua finantzatzeko, Pasaiaiko badian 4.000 etxebizitza eraiki nahi zituzten, eta horrek herriaren bilakaeran eragin handia izango zuen. Krisi ekonomikoak errealitate hau nabarmendu egin du.

Hala ere, Espainiako Ingurumen Ministerioa bera kritikoa izan da proiektuarekin eta ikusita zenbat alegazio jaso duen eta zein administrazio eta erakundek aurkeztu dituzten, nire ustez ingurumen memoria proiektuaren kontrakoa izango zen, eta txostena ofizializatu baino lehen, Pasaiaiko Portuko Agintaritzak eta hura ordezkatzeko duen alderdi politikoak proiektua oraingoz bertan behera uztea erabaki du.

Foru Aldundiko teknikari eta Aranzadiko kide zen Carlos Aseginolaza istripuz hil zaigu. Zein da guregan utzi duen legatua?

Carlos lankide izan dugunontzat benetan galera sentitua izan da, maila pertsonalean, oso estimatua izan delako. Bestalde, Botanika arloan erreferentziakoak dira Euskal Herriko eta inguruko lurraldeetako floraren inguruan berak egindako azterketa eta lanak.

Gipuzkoa bezalako lurralde txiki batean, naturak hobera egin dezake? Etorkizuneko erronka nagusiak zeintzuk dira?

Bai, eta Gipuzkoa erreferentzia izatera ere iritsi da. Europako ingurumen komisarioak gonbidatuta Gipuzkoako hondakinen kudeaketarako eredu eta lortutako datuak azaldu genituen Bruselan. Horretaz gain, herrialde ezberdinetako pertsona eta erakundetako ordezkariak bertako esperientziak ezaugarritu dituzte. Erronkei dagokionez, baliabide naturalen kudeaketa iraunkorra babesteko eta hobetzeko: 2016rako Gipuzkoa osoan %60ko birziklapena lortu eta egiteko dauden azpiegiturak bukatu. Hondakinen sorreraren murrizketa ere gehiago landu beharko genuke eta auzo-konpostatzea sustatzen jarraitu.

Bestetik, eredu energetiko iraunkor baterako trantsizioa bultzatu behar dugu. Oinarria jarri dugu alor honetan lan egiteko eta urratsak emateko, eta abian diren ekimenei segida eman beharko zaie eta berriak martxan jarri. Energiarekin lotutako guztia agendan sartu behar dugu, sentsibilizazioa egin behar dugu, eztabaida bultzatu behar dugu, funtsezko gaia da-eta. Eta horrekin batera, energia kontsumoaren murrizketan, eraginkortasunean eta energia berriztagarrien erabileran oinarritutako alternatiba eraiki poliki-poliki. Energia burujabetza da gure azken helburua.

Azkenik, lurraldeko ekosistemen ezagutza, berreskuratzea eta kontserbazioa bermatu.

Lau urteetan egin duzun ibilbidea nola baloratzen duzu?

Esku artean izandako gaiak kontuan hartuta, eta emakumea eta gaztea izanik, azala narrastien antzera zertxobait gogortu zait...



LA FEDHAV REVISA EL DERECHO HISTÓRICO Y AUTONÓMICO DE VASCONIA



«La FEDHAV celebró en su sede del edificio de la Sociedad de Ciencias Aranzadi el XIII Simposio de Derecho Histórico y Autnómico de Vasconia (20 y 21 de noviembre de 2013), dedicado, en esta ocasión, al decurso posterior al Estatuto de Gernika y del Amejoramiento del Fuero de Navarra»

La FEDHAV ha editado en 2014 el número 11 de su revista anual *Iura Vasconiae*, que recoge las ponencias presentadas al XII Simposio de Derecho histórico y autonómico de los territorios de Vasconia, varios artículos y reseñas.

Asimismo, ha publicado la obra de Miguel de Aramburu Aburruza, *Nueva Recopilación de los Fueros, Privilegios, Buenos usos y Costumbres, Leyes y Ordenanzas de la Muy Noble y Muy Leal Provincia de Guipúzcoa (1696)*, en edición de María Rosa Ayerbe Iríbar, autora de un extenso estudio introductorio publicado en castellano y euskera. La publicación, que constituye el núm. 3 de la serie "Textos jurídicos de Vasconia, Gipuzkoa", cuenta con 915 páginas. Se trata de la reedición crítica de la obra jurídica más relevante de la Historia de Gipuzkoa. Culminado el largo proceso recopilador de la Provincia, gracias al celo y buen hacer de Miguel de Aramburu, se entregó a la Provincia la obra en 1691, bajo el título de *Nueva recopilación de los fueros, privilegios, leyes, ordenanzas, buenos usos y costumbres de la Provincia de Guipúzcoa*. Consta de un proemio y 41 títulos, divididos en 328 capítulos, siguiendo un método de elaboración

propio, al mezclar la copia íntegra del privilegio a recopilar con la elaboración de capítulos en base a la puesta en común de dispositivos de varios documentos que hablan de la misma materia, señalando su autoría y el lugar y fecha de concesión o aprobación, en su caso, y su ubicación en el archivo de la Provincia. Esta monumental obra se halla enriquecida con la transcripción de las diversas Confirmaciones de los fueros guipuzcoanos desde 1397 (Enrique III) hasta 1521 (Carlos I), y el establecimiento de una Tabla de Capítulos final para el más fácil uso y manejo de la misma. Se imprimieron 1.830 ejemplares por el impresor Bernardo de Ugarte en la villa de Tolosa (1697). Tras las confirmaciones de Felipe V (privilegios confirmados, 1701 y resto del Fuero, 1704), se editaron nuevos ejemplares, y a partir de 1758 se incorporó un Suplemento. El conjunto fue reeditado por Gorosabel en 1860, y por la Diputación de Gipuzkoa en 1918.

Se ha editado también la monografía de Antonio Martínez Tomás, *La naturaleza jurídica del régimen foral de Navarra (Serie Humboldt, núm. 5)*. Se trata de la tesis doctoral que este autor defendió en la Universidad Complutense de Ma-



Miembros de la FEDHAV durante el XIII Simposio junto a Juantxo Agirre, secretario general de Aranzadi.

drid en 1972, y que a pesar de su interés historiográfico, había permanecido inédita hasta la fecha. Antonio Martínez Tomás desarrolló su actividad profesional como Contador del Estado en las delegaciones del Ministerio de Hacienda de Vitoria-Gasteiz, Logroño y Pamplona-Iruñea, pasando en 1967 a la Dirección General de Presupuestos en Madrid hasta su jubilación en 1988. Fue, además, profesor de Economía y Hacienda en el Colegio Universitario de la Fundación San Pablo-CEU. La obra ha sido editada por Juan Cruz Alli y Roldán Jimeno. Alli es autor, asimismo, de un extenso estudio preliminar en el que contextualiza el valor historiográfico de la obra y las vicisitudes que sufrió su autor, que por lo heterodoxo de sus tesis, no pudo defender su trabajo en Navarra a principios de los años setenta, y hubo de leerlo en la Universidad Complutense.

Estas publicaciones, como el resto de números de la revista y las diferentes monografías editadas por la FEDHAV se encuentran digitalizadas en la página web fedhav@fedhav.eu

En cuanto a su actividad congresual, la FEDHAV celebró

en su sede del edificio de la Sociedad de Ciencias Aranzadi el XIII Simposio de Derecho Histórico y Autonómico de Vasconia (20 y 21 de noviembre de 2013), dedicado, en esta ocasión, al decurso posterior al Estatuto de Gernika y del Amejoramiento del Fuero de Navarra. La historia de Vasconia después de la aprobación del Estatuto de Gernika, que tantas esperanzas originó, es una serie de eventos, generalmente frustrados, que además se acompañan en el último quinquenio con una agudísima crisis económica. El contexto de la actual coyuntura solo admite explicación con la visión de una constelación de sucesos que parten de la fecha de 1979. El presente Simposio pretende analizar las coordenadas esenciales de ese difícil proceso, así como el generado a partir del Amejoramiento del Fuero de Navarra de 1982.

El Simposio contó con las ponencias de Gurutz Jáuregui Bereciartu ("El Estatuto de Gernika: una valoración desde la actualidad"), Fernando de la Hucha Celador ("Amejoramiento del Fuero: una valoración desde la actualidad"), Iñaki Agirreazkuenaga Zigorraga ("El Primer desarrollo estatutario de

la Comunidad Autónoma Vasca (1979-1983)"), Juan Cruz Alli Aranguren ("El desarrollo inicial del Amejoramiento del Fuero de Navarra"), René Santamaría ("La L.O.A.P.A. y la Sentencia del Tribunal Constitucional: La Ley del Proceso Autonómico"), Xabier Ezeizabarrena ("Del primer Gobierno Ibarretxe a la propuesta de nuevo Estatuto presentada por el Lehendakari: ¿hacia la soberanía compartida?"), Iñaki Lasagabaster ("El nuevo Estatuto Político. Del Parlamento Vasco al Congreso de Diputados. El final de un ciclo"), Miguel José Izu Belloso. Tribunal Administrativo de Navarra ("Las reformas del Amejoramiento del Fuero de Navarra"), Joxerramon Bengoetxea ("El derecho a decidir. Su planteamiento en el Derecho Internacional"), Juan José Álvarez Rubio ("Fuentes del Autogobierno vasco y Derecho a decidir: mito o realidad en el marco europeo"), Joaquín Tornos Mas ("El supuesto catalán: del Estatuto de 2006 a la sentencia 31/2010 del Tribunal Constitucional"), Baleren Bakaikoa ("Crisis económica y autonomía política"), y Miguel Herrero de Miñón ("singularidad vasca en la actualidad").



Guillermo Niessen bere bulegoan.

NIESSEN 100 AÑOS DE HISTORIA

El 27 de junio del 2014 se presentó en los cines Niessen de Rentería el documental "Niessen: 100 años de historia", producido por la Sociedad de Ciencias Aranzadi.

El documental, de 48 minutos de duración, sigue la estela de recopilación de documentación gráfica de la emblemática empresa errenteriarra realizada previamente por Aranzadi. En él se recogen los testimonios de trabajadores de la empresa a la vez que se narran los hitos que la han ayudado a cumplir el centenario. Partiendo de las vivencias del fundador Guillermo Niessen hasta hoy en día, el documental recoge la esencia de esta emblemática fábrica, centrándose en las vivencias de su personal, elemento transformador de la industria y de la sociedad de la zona.

Guillermo Niessen creó un pequeño Manchester en Rentería (Gipuzkoa) en 1914. En aquel entonces fabricaban mecanismos electromecánicos de uso doméstico, como enchufes, interruptores, portalámparas y otros artículos similares. Tras la época dorada de la fábrica, en los años 50, Niessen dejó de ser una empresa familiar a finales de los 70 y entró a formar parte de la multinacional ABB en 1996. Aunque hubo épocas difíciles como la crisis del petróleo o la crisis actual que comenzó en 2008, el paternalismo y la fuerza por un futuro brillante han hecho prosperar a Niessen.

LIBRO Y EXPOSICIÓN

Niessen ha aprovechado la celebración de su centenario para ofrecer un homenaje integral a aquellos que forman parte indispensable de su historia. Junto al documental, se realizó una exposición en el Museo San Telmo y se publicó el libro "Niessen, cien años después", cuyas 200 páginas recogen imágenes y testimonios de empleados de la antigua y la actual Niessen.

Los productos también copan muchas de las escenas del documental, vitrinas en la exposición y páginas en el libro. Se muestra la evolución en el diseño de los mismos, todos ellos vanguardistas, que marcaron las tendencias en las diferentes décadas. También, se hace una radiografía de la comunicación de Niessen a nivel de imagen de marca, catálogos o patrocinios tan sonados como el de la Real Sociedad, en los 80, siendo la primera marca en la camiseta del equipo donostiarra.

«Niessen ha aprovechado la celebración de su centenario para ofrecer un homenaje integral a aquellos que forman parte indispensable de su historia»

«Niessenek bere mendeurrena aprobeixatu du omenaldi trinko eta integrala egiteko»



Niessen eta bere alaba 20. Hamarkada asieran fabrikaren aurrean.



Montaje kateko langileak 60. Hamarkadan.

NIESSEN 100. URTEURRENA

2014ko ekainaren 27an, Errenteriako Niessen zine aretoetan, Aranzadi Zientzia Elkarteak ekoiztutako “Niessen: 100 años de historia” dokumentala estreinatu zen.

48 minutuko luzera duen dokumentalak Aranzadik dokumentazio grafikoaren bilketan egin zuen lanaren ildo jarraitzen du. Bertan, enpresako langileen testigantzak jasotzen dira, eta mendeurrena ospatzen lagundu zuten mugarrak erreparatzen dira. Abiapuntua Guillermo Niessenek fundatzailea da eta enpresatik pasa zirenen bizipenen bitartez fabrika esanguratsuaren esentzia azaltzen da, inguruko industria eta gizartea eraldatu zuen gunea.

1914ean Guillermo Niessenek Manchester txiki bat sortu zuen Errenterian. Garai hartan etxean erabiltzeko tresna elektromekanikoak ekoizten zituzten, hala nola entxufeak, etengailuak, lanpara-euskarriak eta antzeko beste artikulatu batzuk. 50eko hamarkadan fabrikak urrezko aroa ezagutu ondoren, 70eko hamarkadaren amaiera aldera familia-enpresa izateari utzi zion, eta 1996. urtean ABB multinazionalaren barruan sartu zen arte. Nahiz eta garai gogorak bizi izan, petroleoarena edo 2008an hasi zen krisiarena esate baterako, Niessenek aurrera jarraitzeko indarrak eman dizkio bere komunitateari.

LIBURUA ETA ERAKUSKETA

Niessenek bere mendeurrena aprobetxatu du omenaldi trinko eta integrala egiteko. Dokumentalarekin batera, San Telmo Museoa erakusketa eta “Niessen, ehun urte geroago” liburua aurkeztu ziren, azken hau 200 orrialdeko errebaso historikoa jasotzen duena.

Produktuek dokumentalaren eszena, erakusketaren bitrina edota liburuaren argazkiak bereganatzen dituzte eta horien diseinuan izandako bilakaera ikus daiteke, guztiak ere abangoardistak, hamarraldi desberdinetan joera nagusi bilakatuko zirenak. Niessen lantegiak marka-irudi, katalogo edo babes modura egindako komunikazio-lanen erradiografia bat ere egiten da, batzuk sona handikoak, hala nola Real Sociedad taldearena 80ko hamarkadan, Donostiako taldearen elastikoan agertutako lehen marka izanik.

NIESSEN-EKO LANGILEAK, DOKUMENTALAREN ESZENAK



HITOS CIENTÍFICOS 2014



EZKUZTAKO HAGAZKAK



EZKUZTAKO HAGAZKA APAINDUAK

Inork espero ez zuen aurkikuntza izan da Ezkuztako, aparteko kalitatea duten bi hagaxka dekoratuak erdi Madeleine aldikoak direlako (14.000 urte inguru). Izan ere, tamaina honetakoak ez dira osorik agertzen, Iberiar penintsulan bakarrik dira Azpeitiakoak. Hagaxkek hogeitazentimetrotako luzera dute eta orein edo elur-orein adarrezkoak dira, aurrealdea kenduta beste alde guztietan apaingarriak grabatuak dituztelarik. Aurkikuntza Azpeitiako Antxieta Jakintza Taldeari dagokio.



VARILLAS DECORADAS DE EZKUZTA

El hallazgo de dos varillas ornamentadas en el yacimiento de Ezkuzta en Azpeitia, por parte del grupo Antxieta Jakintza Taldea de Azpeitia, resulta inesperado dada la calidad excepcional de las piezas, únicas en toda la Península Ibérica (por su tamaño y porque están enteras) y su antigüedad (Magdalenense medio, más de 14.000 años). Las varillas miden veinte centímetros de longitud y están fabricadas en asta de ciervo o reno, donde se realizaron una serie de profundos grabados en todos sus lados, salvo en la cara posterior, con un claro propósito decorativo.



SAN ADRIANGO ZERAMIKAK



SAN ADRIANGO BRONZE GARAICO ZERAMIKAK

San Adrianek historiaurreko garaitik okupazio handia izan zuela jakin ahal izan da ikerketa horiei esker. Indusketek Gipuzkoako Brontze Aroko (duela 3.500 urte inguru) okupazio garrantzitsuenetariko bat identifikatzea ahalbidetu zuten. Zeramika da San Adriango aztarnategian multzo industrial handiena. Bertan berreskuratu dira hainbat morfologiatako ehunka ontziri dagozkien 1500 zati baino gehiago.



CERAMICAS DEL BRONCE EN SAN ADRIÁN

Las excavaciones en San Adrián han permitido identificar una de las más importantes ocupaciones de la Edad del Bronce (hace unos 3.500 años) en Gipuzkoa. La cerámica constituye el conjunto industrial más abundante en el yacimiento, donde se han recuperado más de 1500 fragmentos correspondientes a varias decenas de vasijas de variada morfología.



2014KO MUGARRIAK

CERVANTESEN BILA

Trinitarias Descalzasen komentuaren barnean, Madrilgo Alcalá kalean, Miguel de Cervantes idazlearen arrastoen bila dihardute. Aranzadi Zientzia Elkarteak koordinatzen du ekimena, Madrilgo udalaren babespean.



BUSCANDO A CERVANTES

Dentro del convento de las Trinitarias Descalzas, situado en la Calle Alcalá de Madrid, un equipo de forenses coordinado por Aranzadi y patrocinado por el ayuntamiento de Madrid realiza la labor científica de encontrar y examinar restos óseos con el fin de encontrar a Miguel de Cervantes.



CERVANTESEN BILA



ARRIBIRIBILLETAKO MENHIRRA ZUTIK

Dolmenen Ibilbidea egitasmoaren baitan burutu diren ikerketek zera ondorioztatu dute: Arribiribilletako monumentu megalitikoak menhir bat da, eta ez dolmena, orain arte uste zen bezala. Honengatik, aurten Arribiribilletako menhirra zutik jartzeko lanak burutu dira hainbat eragileen elkarlanari esker.



EL MENHIR DE ARRIBIRIBILLETA, EN PIE

La puesta en pie del menhir de Arribiribilleta es un nuevo paso importante en el proceso de puesta en valor de la Estación Megalítica de Elosua-Plazentzia y su entorno, cuyo eje central es el sendero temático "Ruta de los Dólmenes". Las investigaciones arqueológicas desarrolladas en este monumento megalítico han concluido que se trata de un menhir, y no un dolmen como se creía.



MENHIR DE ARRIBIRIBILLETA



MIKOLOGIA ESPEZIE BERRIA

Phytotaxa aldizkariak bere 188. zenbakian *Pluteus glaucotinctus* ss. Lato espezie familiaren onddo berriaren deskribapena jaso du. *Pluteus izurun* izena jarri dio aurkitzaileak, Aranzadiko Mikologia saileko zuzendaria den Pedro Arrillagak hain zuzen ere. Donostiako Anoeta zelaian topatu zuen 2011ko abuztuan. Brasil, India, Estatu Batuak eta Espainiako lantaldearen mugarría da honakoa.



NUEVA ESPECIE MICOLÓGICA

La revista Phytotaxa en su número 188 ha publicado el estudio sobre la taxonomía y filogenia del complejo multicontinental de especies que comprenden a *Pluteus glaucotinctus* ss. lato. Dentro de este grupo de especies, se encuentra *Pluteus izurun*, que fue recolectado por primera vez por Pedro Arrillaga en las cercanías del estadio de Anoeta, en Donostia/San Sebastián en agosto de 2011. Tras un prolongado estudio de todas las especies del grupo, por autores de instituciones de Brasil, India, USA y España, la publicación ha visto la luz el 10 de diciembre de 2014.



MIKOLOGIA ESPEZIE BERRIA



GIZARTE ETA HEZIKETA EKINTZAK

PROYECTOS SOCIALES Y EDUCATIVOS



HEZIKETA PROIEKTU EUROPARRAK

2014ean heziketa proiektu europarrak kudeatzen dituen lantaldea trinkotu egin da, memoria soziala, belaunaldien arteko transmisioa, helduen hezkuntza eta resiliencia bezalako gaiak landu direlarik.

Durante el 2014, el equipo gestor de proyectos europeos de educación se ha fortalecido, ahondando en temas como la memoria social, la transmisión intergeneracional, la educación de personas adultas o la resiliencia local.



ZERO ZABOR ESKOLAK

1800 ikasle inguruk jaso dute Zero Zabor heziketa aurtan. Ekimen honen bigarren urtean eskola gehienek errepikatu dute, gazteek sortzen dituzten hondakinen inguruko hausnarketa teorikoa eta ekintza praktikoak jarrai dezaten.

1800 estudiantes han reflexionado sobre la generación de residuos y la forma práctica de reducirlos y procesarlos durante el segundo año del proyecto Zero Zabor. La mayoría de centros educativos han repetido la experiencia y el proyecto se consolida para el futuro.



ARANGUREN LANTEGI ESKOLA

Aranguren Lantegi Eskolaren ikastaro berria bukatu da eta aurtengoan 16 pertona trebatu dira. Gizarte ekimen garrantzitsu honen ikasleriaren %70k Lantegi Eskola bukatu bezain laster lana aurkitu du, horietako 10 Aranzadik kontratatatuak.

La Escuela Taller de Empleo de Aranguren ha concluido un año más formando a 16 personas y realizando una labor social excelente, ya que el 70% del alumnado comenzó a trabajar al terminar la Escuela Taller, 10 de ellos contratados por Aranzadi.



URDAIBAI BIRD CENTER

2014ean zehar Urdaibai Bird Centerren posizionamendu eta ezagutza areagotu da, etxeko naiz atzerriko bisitarien kopurua esponentzialki handituz. Honela, eskualdearen bozgorailua bihurtu da, ekoturismoaren erreferentzia izanik.

Durante el año 2014, Urdaibai Bird Center ha mejorado en posicionamiento y visibilidad, aumentando de manera exponencial las visitas al centro, no solamente de personas de la zona, sino también de otras partes de la Península Ibérica y del mundo, proporcionando así una mayor publicidad y desarrollo del ecoturismo.



AUZOLANDEGIAK 2014



Aranzadi Zientzia Elkartea, UEUk, Udalbiltzak, UPV/EHUK, Aduna, Asteasu, Zizurkil, eta Galipentzuko udalek eta Gipuzkoako Foru Aldundiak elkarlanean, bi auzolandegi antolatu dituzte 2014ean, gazteen formakuntza sustatu eta Euskal Herriko oroimen historikoa berreskuratzeko helburuarekin: Gerra Zibila 1936-1937. Erresistentziaren oroimena eta aztarnen bila; eta Nafarroako mugak Erdi Aroan.

2011. urteaz geroztik Botanika sailak Gipuzkoako Foru Aldundia eta Eusko Jaurlaritzarekin elkarlanean hasitako lanen jarraipena da honako proiektua. Ikerketa area, Zarauzko eta Zumaiako hareatzak Natura 2000 Sareko Kontserbazio Bereziko Eremuak dira (Iñurritza ES2120009 eta Urola itsasadarra ES2120004). Bi hareatzetan Habitat Zuzentarauko (EEE/92/43) I Eranskinean dauden lehentasunezko habitatak aurki daitezke. Lanen helburua dunen berreskurapena da.

Oro har, egin diren lanak espezie egituratzaileen hazi bilketa, hazien hozitze probak, landareen ekoizpena, espezie exotikoen erradikazioa, partzela esperimentalen jarraipena, eta sentsibilizazio lanak dira.

2013. urtean bildutako landare espezieen hazietatik landareak ekoiztu dira eta gutxi batzuekin hozitze probak egin dira. Hozitze probak nahiz landare ekoizpena Gipuzkoako Foru Aldundiko Arizmendiko mintegian egin dira.

Landare ekoizpenari dagokionez, bildutako hazien ereinketa eta adaxken landaketa bidez egin da. Gainera, *Dianthus hyssopifolius*, *Sedum acre* eta *Festuca vasconensis* espezieen kasuan, bankaletan landatu dira era begetatiboan haz daitezten. Honi, Iñurritzako Biotopo Babestutik zuzenean ekarritako landareak batu behar zaizkio. Honenbestez, 2014. urtean zehar 15 espezieen 6.000 landare baino gehiago lortu dira mintegian.

Mintegian egindako lanez gain, 2012. urtean lehengoratutako guzuetan jarritako partzela esperimentalen jarraipena ere egin da, landare presentzia eta estaldura neurtuz. Guztira, 18 partzeletan 36 landare espezie ikusi dira. Lortutako emaitzei erreparatuz, espezieen ekologiari dagokionez, dunetako

esklusiboak, itsas ekosistemetako eksklusiboak eta dunetakoa baina beste ekosistema kontinentaletan hazten direnak batuz, espezieen %59a osatzen dute. Espezieen %11 exotikoak dira eta %8 nitrofiloak. Itsas ekosistemetakoak ez diren beste espezieei dagokionez %22a dira.

Dunako leheneratze lanetan maiz jazotzen den gertaera, espezie exotiko nahiz erruderalen kolonizazioa da. Espezie hauek estaldura

handia hartzera hel daitezke denbora laburrean eta ekiditea ez da bate-re erraza ingurunean espezie hauen presentzia handia baita. Hau dela eta, aurreko urteetan hasitako landare exotikoen erradikazioarekin jarraitu da. Erradikazio lana 2012. urtean lehengoratu egin ziren bi guzuetan egin da. Honetaz gain, hainbat landare exotikoen kartografia eguneratu da datozen urteetan egingo diren ezabaketa lanak diseinatuzera begira.



Arizmendiko mintegian dunetako landareen ekoizpena.



Partzela esperimentalak dauden eremua. Bertan landare exotikoen ezabaketa egin da.

CONSERVACIÓN DE LA BIODIVERSIDAD VEGETAL EN LOS ARENALES COSTEROS CANTÁBRICOS (LIFE+ ARCOS)

Financiación: Comisión Europea y participantes

Participantes: Universidad de Oviedo, Ministerio de Medio Ambiente, Diputación Foral de Gipuzkoa, Ecología litoral S.L., Sociedad de Ciencias Aranzadi y Gobierno de Cantabria

Los sistemas dunares y las playas son escasos en la costa cantábrica, caracterizados por un perfil abrupto en el que predominan los acantilados. Estos ecosistemas presentan normalmente un escaso grado de desarrollo en nuestro litoral, fenómeno que se ve agravado por una elevada presión de origen antrópico, especialmente severa durante la época estival. Estos factores, unidos a la fragilidad de un ecosistema que en su morfogénesis y evolución se caracterizan por un gran dinamismo, explican la necesidad de adoptar medidas que aseguren su estado de conservación en niveles aceptables. Además, buena parte de las especies exclusivas de estos ambientes aparece en listas rojas y catálogos regionales de flora amenazada.

Este proyecto está liderado por la Universidad de Oviedo y se desarrollará desde julio del 2014 hasta diciembre del 2018. Su objetivo es la mejora del estado de conservación de 10 ecosistemas dunares de la costa cantábrica. En el caso de Gipuzkoa se trabajará en la ZEC ES2120004 Ría de Urola y en la ZEC



Dunas de Zarautz.

ES210009 Biotopo Protegido de Iñurritza.

El Departamento de Botánica participará en varias acciones del proyecto en la que destacan las acciones técnicas de recolección de germoplasma, desarrollo de proto-

colos de cultivo de especies relevantes para la restauración de ecosistemas dunares, y el seguimiento del impacto de las acciones del proyecto. Durante este año se ha empezado la recolecta de las especies dunares y sus pruebas de germinación con el fin de diseñar protocolos de cultivo para cada una de las especies y producir el mayor número de planta posible para los trabajos de restauración del hábitat que se realizarán dentro del proyecto los siguientes años.



La especie amenazada *Honckenya peploides*, presente en Zarautz y Zumaia.



SEGUIMIENTO CIENTÍFICO DEL PROYECTO LIFE08NAT/E/000055 PARA LA RESTAURACIÓN DE HÁBITATS DE INTERÉS COMUNITARIO DE ESTUARIOS DEL PAÍS VASCO Y

SEGUIMIENTO DE LAS ÁREAS DE ACTUACIÓN DEL "PROYECTO LIFE08NAT/E/000055 - RESTAURACIÓN DE HÁBITATS DE INTERÉS COMUNITARIO EN ESTUARIOS DEL PAÍS VASCO" EN EL MARCO DEL PLAN DE CONSERVACIÓN POST-LIFE

Financiado por IHOBE

Participantes: Leire Oreja, Mari Azpiroz, Amador Prieto, Yoana García, Maialen Arrieta y Anaïs Mitxelena

En los estuarios de la CAPV la invasión por la especie *Baccharis halimifolia* constituye una de las más graves amenazas que se ciernen sobre sus marismas, por lo que es necesario llevar a cabo campañas de eliminación y control.

Por ello, desde el año 2007 se llevan efectuando diferentes proyectos de control de la especie y desde el año 2010 hasta el 2014 se ha llevado a cabo por parte del Departamento de Medio Ambiente y Política Territorial del Gobierno Vasco e IHOBE el proyecto "LIFE08NAT/E/000055 Restauración de Hábitats de Interés Comunitario en Estuarios del País Vasco" para su eliminación en los estuarios de Urdaibai, Lea y Bidasoa. El proyecto finalizó en febrero del 2014.

No obstante, una vez finalizado dicho proyecto, se vio la necesidad de realizar un último muestreo en los tres estuarios, naciendo así el siguiente proyecto denominado "Seguimiento de las áreas de actuación del proyecto LIFE08NAT/E/000055-Restauración de Hábitats de Interés Comunitario en Estuarios del País Vasco en el marco del Plan de

Conservación Post-LIFE" cuyo objetivo ha sido triple. 1) Por una parte mostrar y analizar los resultados definitivos de los trabajos de eliminación del proyecto "LIFE08NAT/E/000055 Restauración de Hábitats de Interés Comunitario en Estuarios del País Vasco", que continuaron hasta febrero de 2014. 2) Determinar con más claridad la efectividad de los trabajos de eliminación y el grado de recuperación de los hábitats estuarinos. 3) Planificar las actuaciones del "Plan de Conservación Post-LIFE".

La Sociedad de Ciencias Aranzadi ha sido la encargada de realizar el seguimiento científico en ambos proyectos. Este seguimiento se ha basado en la recogida de datos de las áreas donde se han realizado labores de erradicación de *B. halimifolia* y análisis de los datos obtenidos con el fin de mejorar la metodología utilizada y determinar el grado de recuperación de los hábitats tras las actuaciones.

Los resultados obtenidos indican que la eliminación del arbusto invasor *B. halimifolia* está siendo efectiva, aunque con dos situaciones dife-

rentes. Por un lado, en la Reserva de la Biosfera de Urdaibai se comenzó a actuar en 2007 y se observa una paulatina reducción en el rebrote, mientras que en los otros dos estuarios la efectividad, teniendo en cuenta únicamente el rebrote, es mayor, a pesar de que se comenzó a eliminar en 2012. En este resultado pueden estar influyendo dos factores. Por una parte, parece que puede influir el diámetro del tronco que se asocia directamente con la edad. Los troncos de los arbustos de *B. halimifolia* de Urdaibai en general, tienen mayor diámetro que los de Lea o Bidasoa, lo que hace pensar que son mayores.

Por otra parte, el número de plántulas por metro cuadrado ha dado elevados valores este año en Lea y Bidasoa, aunque algo similar ocurrió en Urdaibai los primeros años de tratamiento. Se necesitarán datos en años posteriores para determinar si, al igual que ocurrió en el estuario del Oka, estas altas densidades iniciales irán disminuyendo conforme se siga actuando.

En los resultados obtenidos en los diferentes ensayos con distintas



Áreas de actuación del proyecto LIFE (marisma interior de Urdaibai, islas y estuario del río Bidasoa y estuario del río Lea).



Parcelas donde se han efectuado pruebas experimentales de fumigación, Bidasoa (año 2014). Vista general de las marismas de Lea (año 2014).

metodologías se aprecia la gran importancia que tiene el llevar a cabo metodologías respetuosas con las especies autóctonas, ya que al evitar el daño a las mismas permite una mejor recuperación de la vegetación propia del entorno. En los tres estuarios ha habido este año una im-

portante colonización por parte de las especies autóctonas propias de estos medios, viéndose favorecidos hábitats como los juncales marinos, los carrizales y las praderas de *Elymus*, lo que conlleva una importante mejora en la situación de estos ambientes en la Red Natura 2000.

Sin embargo, aunque la tendencia es positiva, el problema aún sigue presente en los tres estuarios, con lo que es necesario continuar con las actuaciones de eliminación, ya que en caso contrario es muy posible una reinvasión por parte del arbusto.


GOINATUR-GIS: GOIERRIN NATURA EDOTA PAISAIA IKUSPEGITIK GARRANTZI BEREZIA DUTEN GUNEEN INBENTARIO DIGITALA

Finantzazioa: Goieki

Parte-hartzaileak: Joseba Garmendia

Ikerketa-eremua Goierriko eskualdean duen proiektua da hau eta beraz eskualde hau osatzen duten 18

udalerrriak barneratzen dira. Garrantzizkoa da aipatzea lehenik eta behin, azken urte hauetan Udalerr



1x1 Km-tako UTM laukiek ondare naturalaren ikuspegitik lortu duten balio erlatiboa: gorri, balio baxua; laranja, baxua-ertaina; hori, ertaina; berde argiz, altua; eta, berde ilunez, balio oso altua. Beltzez 1x1 Km-tako UTMak agertzen dira.

hauetako bakoitzak bere aldetik lan asko egin dituela Udalerriko eta eskualdeko biodibertsitatea faboratzearen GOIEKIREkin (Eskualdeko Garapenerako Agentzia) elkarlanean eta informazio berri ugari sortzen joan dela zentzu honetan.

Azaltzen den lan honen bitartez beraz, Udalerrri ezberdinek sortutako informazio baliagarri guzti hori batu eta informazio geografiko digitala biltzeko eta kudeatzeko geografiko informazio sistema (GIS) garatu da. Honekin guztiarekin Goierriko eskualdean biodibertsitatearen ikuspegitik garrantzi berezia duten guneak identifikatu dira.

Kontutan izan behar da gaur egun informazio geografiko digitalaren erabilera gero eta zabaldugoa dagoela, ez bakarrik teknikari, kudeatzaile edota ikertzaileen artean, baita teknologia berrien erabiltzaileen artean ere. Beraz, lan honen emaitzak, eskualdeko informazio

geografiko digital bateratuak alegia, hainbat erabilera ezberdin izan ditzake: ingurune naturalen kudeaketan, arrisku guneak zehazterakoan, aisialdian eta turismoan...

Hau lortzeko, lehenik eta behin Goierriko eremuari buruzko informazio geografikoaren bilketa gauzatu da (biota, garraioa, lurzorua, ur-sistemak, etab.) Eusko Jaurlaritzaren informazioa geografikorako FTPa erabilia (<ftp://ftp.geo.euskadi.net/cartografia>). Kontutan izan behar da informazio geografiko gehiena sortzen den unetik zaharkitua gertzen dela. Hau dela eta ahal izan den heinean informazio hori eguneratua izan da. Azkenik, informazio horrekin, Goierri eskualderako balioztapen sistema garatu eta analizatu da.

Denera 6 arlo baloratu eta mapan adierazi dira: paisaia, geologia, habitata, fauna, intereseko elementuak eta ondare naturala orokorrean. Lortutako balio edo indizeak

5 kategoria edo klasetan homogenizatu dira (informaziorik ez, balio baxua, balio baxua-ertaina, balio ertaina, balio altua eta balio oso altua), eta balio bakoitza kolore baten bidez adierazi da mapan. Maparen unitate minimoa 1x1 Km-tako UTM laukia izan da. Ondare naturalaren ikuspegitik garrantzi handiena duten guneak identifikatu ahal izateko indize guztien arteko konbinazioa gauzatu da eta lorturiko balioak 5 klasetan sailkatu dira berriro ere 1x1 Km-tako UTM-tan antolatuz.

Balio altuena lortu duten guneak parke natural eta eremu babestuen inguruan biltzen dira. Balio baxuena lortu duten eremuen artean berriz, herrigune eta industrialde handienak (Beasain-Ordizia-Lazkao korridorea) aurkitzen dira. Esperotako emaitza izan daiteke hori, baina aurrera begira beharrezkoa litzateke, alde batetik, balioztapenerako erabili ez diren hainbat geruza erabil-

tzea (interes geoarkeologikoa duten guneak, babestu beharreko basoak, nekazaritzarako gune bereziak...), eta, bestetik, Goierriko propio sorturiko informazio geografikoko geruzak garatzea.

Laburbilduz, ondare naturalari buruzko informazioa kudeatzaile naiz erabiltzaileentzako eskuragarri egoteak aukera zabalak ematen dizkigu. Kudeatzaileari garrantzi berezia duten elementuen kokalekua eta egoera ezagutzen lagunduko die, aurrera begira egin beharreko lanen plangintzan lagunduz. Erabiltzaile pribatuei Goierriko ondare naturala hobe ezagutzeko aukera emango die eta aurrera begira turismoa edota aisialdirako ekimenak antolatzeko eta modu arduratsu eta aktiboan gauzatzeko. Horrek aldi berean, jarduera ekonomikoan eragin dezake kanpoko bisitariei eskaini dakiokegun informazioaren osagarri bihurtuz.

GOIERRIKO ESKUALDEAN ESPEZIE INBADITZAILEEN ERRADIKAZIORAKO LANAK. IV. FASEA (2011-2014)

Finantziak: Goierriko Garapen Agentzia (GOIEKI)

Parte-hartzaileak: Lorena Uriarte, Mari Azpiroz, Yoana Garcia, Maialen Arrieta, Mikel Etxeberria eta Maddi Otamendi

2010ean hasi zen proiektu honen helburu nagusia Goierriko flora eta fauna inbaditzailearen erradikazioa da. Proiektu Globala Goierriko 18 udalerrietan gauzatzen ari da: Arama, Alzaga, Ataun, Beasain, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain. Herri hauez gain ekintzak Alzaniako Partzuergoan eta Enirio-Aralarko Mankomunitatean ere egiten ari dira.

Fase honetan, lehenengo eta behin aurreko urteetako *Fallopia japonica*, *Helianthus tuberosus*, *Cortaderia selloana* eta *Buddleja davidii* espezieen kartografian oinarrituz eremu osoa miatu da. Behin miaketa lanak egin ostean espezie bakoitzaren erazketarako tratamenduak aplikatu dira.

Lehenik, ekainean, *Fallopia japonica* espeziaren mozketak lanak burutu dira. Mozketa horien helbu-

ria espezie honen aleek zuten tamaina handia txikitzea zen, ernaberririak agertzean herbizidaren aplikazioa errazagoa izan zedin.



Buddleja davidii landareari herbizida aplikatzen.

Buddleja davidii, *Fallopia japonica* eta *Helianthus tuberosus* espezieei herbizida aplikatu zaie iraila eta urria bitartean Goierri

eskualdeko eremu guztian. *Cortaderia selloana* espeziearen kasuan urri-azaroan aplikatu zaio herbizida.

Behin tratamenduekin amaitu ostean ibar-basoen lehengoratzela nei jarraipena eman zaie bertako zuhaitzen landaketekin. Horretarako, erradikazio lanak gauzatu diren ibai-ertzetan bertako zuhaitz eta zuhaixken (haltza, sahatsa, intsusa, lizarra ...) landaketak egin dira urte amaieran.

Kartografia eguneratuari esker 2011 urtean hasita aplikatu den tratamenduen eraginkortasuna neurtu ahal izan da. Ondoko taulan espezie bakoitzaren azaleraren bilakaera ikus dezakegu 2012 urtetik gaur arte.

Ondorio bezala esan daiteke urtero detektatzen direla puntu isolatu berriak eta urteroko kartografia behaketa ezinbestekoa dela espezie hauek detektatu eta tratatzea estaldura dentsuak eragozteko.

Behin azalera dentsu eta jarraitua osatzen dutenean zaildu edota moteldu egiten da erabateko erazketa. Gaur egungo egoera honen isla da, izan ere eremu dentsuak osatzen



Ibai ertzeko landaketa lanak burutzen.

urtea	<i>Buddleja davidii</i>	<i>Cortaderia selloana</i>	<i>Fallopia japonica</i>	<i>Helianthus tuberosus</i>
2012	7,9996	0,4094	5,8348	2,3181
2013	4,0039	0,2244	1,0183	0,7917
2014	4,4916	0,1753	0,9103	1,2550

2012 eta 2014 urteetan espezie bakoitzak okupatutako eremua Ha-tan.

dituzten landareen tamaina asko murriztu da eta honekin batera herbizidaren transpirazio azalera ere bai. Ondorioz tratamenduek eragiten dien kaltea motelagoa da baina eraginkorra izaten jarraitzen du. *Helianthus tuberosus* espeziearen kasua salbuespena da, izan ere es-

pezie hau gutxi bada ere ugartzen ari da estaldura dentsuak hartzen dituen eremuan tratamendua jasan arren. Hurrengo fasera begira esfortzu berezia egingo da espezie honekin, tratamendu desberdinak baloratuko dira eta tratamendu egokiago bat topatzen bada abian jarriko da.

TOLOSALDEAN ESPEZIE INBADITZAILEEN ERRADIKAZIORAKO LANAK. II. FASEA

Finantziazioa: Tolosaldea Garatzen

Parte-hartzaileak: Lorena Uriarte, Mari Azpiroz, Maialen Arrieta eta Mikel Etxeberria

2013an hasiera eman zitzaion proiektu honen helburu nagusiak Tolosaldean flora inbaditzailearen erradikazioa eta ibar-basoen errehabilitazioa dira. Proiektu Globala Tolosaldeako 28 udalerrietan gauzatu bada ere faseka egingo da eta orain arteko bi faseak honela banatu dira:

I. fasea: Ikaztegieta eta Tolosa arteko Oria ibaiaren tramua (Tolosa barne) eta Araxes azpi-arroan.

II. fasea: Tolosa eta Aduna arteko (Aduna barne) Oria ibaiaren tramua eta Amezketa eta Salubita azpi-arroetan.

Bigarren fase honetan ekosistematan kalte nabariak sortzen dituzten lau espezieekin jarraitu



Berde argiz I. fasean trataturiko eremua eta berde ilunez II. fasean tratatutako eremua.

dugu lanean: *Fallopia japonica*, *Helianthus tuberosus*, *Cortaderia selloana* eta *Buddleja davidii*. Espezie hauek duten banaketa aztertu da: Ikaztegieta eta Tolosa lotzen dituen Oria ibaiaren tramuan eta Araxes azpi-arroan iaz egindako lanak berrikusi eta berkartografiatu egin dira, hauen azalera txikitu den ala ez aztertzeko. Bestalde, eremu hauetatik at topatutako aleak ere kartografiatu dira. Eta azkenik, Tolosa eta Aduna lotzen dituen Oria ibaiaren tramuan eta Amezketa eta Salubita azpi-arroetan dauden landare espezie inbaditzaileak kartografiatu dira. Banaketaren azterketa honekin espezie hauek ikerketa-eremuan duten egoera jakin ahal izan da eta aktuzio eremuen aukeraketa erraztu du.

Behin azalera ezagututa erauzketak lanei ekin zaie hainbat tratamendu aplikatuz. *Fallopia japonica* espeziearen kasuan lehenengo tratamendu mekanikoa (mozketa) aplikatu da ekainean eta iraila-urrian herbizidaren aplikazioaren bidez tratamendu kimikoa. *Buddleja davidii*, *Cortaderia selloana* eta *Helianthus tuberosus* kasuan herbizida aplikatu zaie iraila-urrian.

Ondoren ibai-ertzeko habitat naturalen errestituzioari ekin zaio zuhaitz eta zuhaisken landaketaren bidez eta horretarako eremu egoiak aukeratu eta kartografiatu ondoren 2014ko azaroan egin dira landaketak.

Bestalde gai honek duen garrantzia eta ekintzak burutzeko premia



Billabonan *Fallopia japonica* agertzen deneko tratatutako eremua.



Tolosa eta Alegi artean *Buddleja davidii* agertzen deneko eremu tratatua



Alegi ibai bazterrean landaketak egiten.

gizartean barneratzea beharrezkoztat ikusten da. Gero eta jende gehiago dago kontzientziatua ingurugiro gaietan eta administrazio ezberdinetatik burutzen ari diren lanen jakinarazpena beharrezkoa da.

Hori dela eta bi panel informatibo jarri dira Tolosan eta Alegian landare espezie hauek sortzen dituzten kalteak aipatuz eta proiektu honetan arazo horiei aurre egiteko burutuko diren ekintzak azalduz.



Alegi eta Tolosan jarri diren informazio panelen irudiak.

ORDIZIAKO OIANGU LANDA PARKEAREN BALIO NATURALAK LEHENERATZEN 2013-2014

Finantzazioa: Eusko Jaurlaritz, Gipuzkoako Foru Aldundia eta Ordiziako Udala
Parte-hartzaileak: Yoana García, Maialen Arrieta, Joseba Garmendia eta Lorena Uriarte.

Oiangu landa-parkea aisialdirako gune berdea bada ere, Parkea zentzu honetan indartzeko Aranzadiko Botanika sailarekin lankidetzaz hitzarmena sinatu du Udalak. Ondoren lankidetzaz hitzarmen horren barnean aurrera eramaten diren lanak azaltzen dira:

AZTERLANAK

Oria garaia KBEko Agauntza eta Amundarain erreken arteko

korridore ekologikoaren diseinua eta hau indartzeko landa lurren lanketa.

Oria Garaia Kontserbazio Bereziko Eremu (KBE) bezala izendatua dago Natura 2000 sarearen barnean. Ibai-korridore ekologiko hau lau tarte ez jarraituk osatzen dute. Honen arrazoia bere ibilguan topatzen dituen industriagune eta herri-guneak dira eta honek era bortitzean oztopatzen du ibaien lotura ekologikoa. Horieta-ko bi tarte Agauntza eta Amundarain

errekei dagokie. Bi hauek Ordizia hego-ekialde eta hego-mendebaldeko mugekin bat egiten dute.

Lan honen bitartez, ibai-tarte horien arteko loturak bilatu nahi izan dira eta horien gainean lan egin, Agauntza eta Amundarain errekek ekologikoki lotuz alegia. Lotura zuzena eta naturala berreskuratzea ezinezkoa denez, lotura hori ahalik eta gehien ordezkatzeko duen korridore ekologikoa diseinatu da.

Lotura hau posible egin ahal izateko landa lurren lanketa gauzatu da ere. Korridoreak ukitzen dituen partzelen kudeaketa egokia bermatzeko era ezberdineko informazioa bildu eta sortu da.

Bertako karramarroaren populazioak indartu

Oianguren Landa Parkean eta inguruko errekaetan bertako karramarroaren (*Austropotamobius pallipes*) populazioak berreskuratze lanak egin dira.

Horretarako kanpoko karramarroaren ausentzia "de visu" ziurtatu da lehenik. Ondoren ur-laginak hartu dira eta hainbat parametro analizatu bertako karramarroarentzako kalitate oneko ura dela ziurtatzearen.

Zuhaitz lepatuen inbentarioa

Azken hamarkadetan Oianguko haritz lepatuak ez dira zuhaitz horien kontserbazioa eta biziraupena luzatzeko ikuspuntutik. Kudeatu, eta honek zuhaitz hauetako batzuk kontserbazio egoera larrian utzi ditu.

Lan honen bitartez zuhaitz lepatu horien ezaugarri ezberdinak jasotzen dira. Honen xedea ikuspuntu kultural eta ekologikotik hain garrantzitsuak diren elementu hauek mantendu eta babesteko oinarritzako informazioa jasotzea izan da, hortik abiatuta kudeaketarako irizpide berriak markatuz.



Agauntza eta Amundarain erreken arteko Korridore ekologikoa, korridorearen Amortiguazio-gunea eta esfortzu minimoaren lerroa adierazten duen mapa.



Altamirako putzua egokitze lanen ondoren.

PARKEAREN KUDEAKETA

Altamira putzuaren egokitze lanak

Ordiziako Altamirako putzuaren egungo balio naturala eta izan dezakeen balio didaktikoa kontutan hartuz, bi horiek indartzeko lanak eraman dira aurrera.

Flora espezie exotiko inbaditzaileen erradikazioa

2013. eta 2014. urteetan zehar, Oianguren Parkean aurkitzen diren landare exotiko inbaditzaileen aleak tratatu dira, parketik ezabatzeko helburuarekin.

DIBULGAZIOA

Txorientzako habi-kutxen tailerra: habi-kutxak eraiki, Parkean zehar ipini eta aurrerago hutsik edo okupatuak zeuden ikusi zen. Horrez gain, hegaztien eraztunketa burutu zen.

Landa-lanetara gerturatzeko auzolanak: aurrerantzean egingo diren landaketetan erabiliko den konposterako gunea egokitu zen.

Euskal Herriko basoen inguruko hitzaldia: Biodibertsitatearen nazioarteko egunean, maiatzaren 22an, Miel Mari Elozegi "Euskal Herriko baso naturalak, biziaren iturri" hitzaldia eskaini zuen Ordizian.

Astronomia saioa: udaberri amaierako gau batean Astronomia saioa antolatu zen. Bertan zeruko izar, planeta, konstelazio eta hainbat kuriositateei buruz hitz egin zen.

Altamira putzura irteera: Behin Altamira putzuko egokitze lanak amaituta, herritarrek inguru hau ezagutzeko irteera antolatu zen. Bertan ekosistema hauen garrantzia eta bertan bizi daitezkeen izaki bizidunak ezagutu ziren.

Bertako natur balioen ezagutza zabaltea: Oiangu Parkeko natur balioak ezagutarazi eta horiekiko



Parkean zehar habi-kutxak ipintzen.



Konposta egin eta konposterako gunea egokitzeko auzolanean.



Altamira putzura irteera.

sentsibilizazioa handitu eta babes-tearren gai ezberdinak lantzen di-

tuzten informazio-panel ezberdinak sortu dira.

2008. urtetik gaur arte Itsasondoko Udala Eusko Jaurlaritzako laguntzaren bitartez eta Botanika sailarekin elkarlanean Udalerriko biodibertsitatearen kontserbazioa eta errestituzioa helburu izan duten hainbat ekimen gauzatu ari da, hala nola, baso naturalen berreskurapena, flora exotikoaren erradikazioa, landa-eremuaren indartzea eta ingurumen heziketara bideratutako ekintza ezberdinak.

Testuinguru honetan, 2014. urtean zehar aurreko urteetan abian jarritako lehentasuneko lan-ildoak mantendu, sendotu eta lan-ildo berriak martxan jarri dira.

HABITAT NATURALAK MANTENDU ETA BERRESKURATZEKO LANAK

Baso potentzialaren aldeko lanak

Batez ere zuhaitz eta zuhaixka espezie autoktono ezberdinen landaketak burutu dira Udalerriko gune ezberdinetan.

Honi dagokionez, badira urte batzuk, Itsasondoko Udala Aranzadiren laguntzarekin, Murumendiko Interes Naturalistikoko Gunea eko-

logikoki berreskuratzeko esfortzu berezia egiten ari dela. Horrela aurreko urtean, koniferoak erretiratu, bertako zuhaitz hostogalkorrak landatu, sasi garbiketak eta itxiturak sortu eta burutu dira bereziki Murumendi inguruan.

Erreka-ertzeko habitaten errestituzioerako mantentze-lanak

Itsasondoko kontserbazio egoera okerrean aurkitzen ziren erreka-ertzeko errestituzioa eta mantentze-lanak eraman dira aurrera. Horrela 2013. urtean landatutako zuhaitzen jarraipena egin da galdutako landareak berriengatik ordezkatzu eta egurrezko estaka eta tutu okerrak zuzenduz batez ere.

Flora exotikoaren erradikazioa Udalerrian eta ibai-ertzeko halzadien lehengoratzeko

Badira hainbat urte Udala eta Aranzadi flora exotikoaren erradikazio lanetan hasia dela. Urtetik urtera Itsasondoko Udalerrian egoera faboragarriagoa dela baieztatzen den arren lan hauetan etenik ez egoteak berebiziko garrantzia du egindako lana alferrikakoa izan ez dadin. Gauzak honela, 2014. urtean zehar au-

rreko urteetan herbizida aplikatutako guneak errebisatu eta kartografia berri du: erradikatutako guneak eta puntu berriak identifikatu. Horrela landare exotiko inbaditzaileak oraindik bizirik irauten zuten edota errebrote berriak aurkezten zituzten guneetan tratamendu berriak aplikatu dira landareen fenologian oinarritutako metodologiaren arabera.

DIBULGAZIOA

Bertako fruta-arbolen banaketa eta landare-hesiak sortzeko zuhaixken banaketa

Itsasondoko herritarrek euren lurretan biodibertsitatearen aldeko ekintzak burutzeko konpromisoa hartzeko zailtasunak ikusirik duela bi urte, herritar ororentzako fruta-arbola espezie ezberdinak dohainik eskuragarri uztea erabaki zen Udalerriko landa-lur zein lorategietan landa zitzaten. Ekimen honen arrakasta ikusirik, 2014. urtean ekimen berdina eraman da aurrera. Baina oraingoan, fruta-arbolen bertako barietateak indartu nahi izan dira horien berri emanez eta horien banaketa burutuz. Fruta-arbolez gain, landare-hesietarako zuhaixkak ere banatu dira.

Itsasondoko herri-eskolako umeekin zuhaitz eguna ospatzea.

Egun honetan herriko txikienek Itsasondoko Udalerrian zehar bertako zuhaitz eta zuhaixka espezie ezberdinak ezagutu eta landatzeko aukera izan zuten. Jarduera hau aprobetxatuz gure inguruko basoen ezaugarri nagusiak adierazi eta horiek mantendu eta zaintzearen garrantzia adierazi zen. Horretaz gain, herri inguruko zuhaitz gazteetan habi kutxak ipini ziren.



Murumendiko espezie autoktonoen landaketak egiten itxitura eraiki ondoren.

LEGAZPIKO FLORA EXOTIKO INBADITZAILEAREN ERRADIKAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA 2013-2015

Finantzazioa: Eusko Jaurlaritzaren eta Legazpiko Udala
Parte-hartzaileak: Yoana García eta Lorena Uriarte

2013., 2014. eta 2015. urteen artean *Cortaderia selloana*, *Fallopia japonica*, *Buddleja davidi* eta *Helianthus tuberosus* espezieen erradikazioarekin eta beraiek ageri diren habitaten errestituzioarekin lanean hasi da Legazpiko Udala Aranzadirekin elkarlanean.

Horretarako hauek dira jarraitutako pausoak:

1. Laginketa eremuak definitzea eta jarraipen lanak: Udalerriaren errebisio bat egiten da urtero landare hauen populazioak bilatu eta tratamenduen eraginkortasuna ezagutzeko asmoz.

2. Erradikazioa: landare espeziearen eta gune bakoitzak aurkezten zuen egoeraren arabera metodologia ezberdina erabili da, hala nola, eskuzko erauzketa, mozketak edota herbizidaren aplikazioa pulberizazio edo xiringa bitartez.

3. Habitat naturalen lehengoratzia: espezie exotiko inbaditzaileak

hazten ziren habitatak errestituziozko hazkuntza azkarreko bertako zuhaitz eta zuhaixken landaketak egin dira (haltzak, lizarrak, sahasak, urkiak, etab.). Landaketa hauek hazten direnean hartzen duten eremuak eta sortzen duten itzallak landare exotikoen hazkuntza eragotziko baitu.

4. Etxeko lorategietan espezie exotikoak espezie autoktonoen-gatik ordezkatzia: askotan, espezie exotiko inbaditzaileak lorategi pribatueta ikusten ditugu apaingarri gisa. Lorategi hauek espezie hauen iturri nagusietako bat izanik, horiek bertako espezieez ordezkatu dira, bide batez honetan parte-hartzen duten herritarren sentsibilizazioa landuz.

5. Espezie exotiko inbaditzaileen erradikazioan laguntzeko parte-hartzea sustatu: herritarrek flora exotiko inbaditzaileen erradikazioan ere lagundu dezake-



Brinkola auzoan *Fallopia japonica* espezie inbaditzailea tratatutako tokietan landare autoktonoak landatzen.

tela pentsatu da, bide batez, espezie hauen inguruko ezagutza zabaltzeko aprobetxatuz. Horrela, Udaleko web orrian "Legazpiko flora exotiko inbaditzailea lokalitzatzeko" atala sortu da. Bertan, herritarrek landare hauen inguruko informazio sartzeko aukera izan dute: espeziea, bere kopurua, eta bere erradikazioan lagungarri izan daitezkeen beste hainbat ezaigarri.

DONOSTIAKO LANDARE ESPEZIE MEHATXATUEN KONTSERBAZIOA BERMATZEKO EKIMENAK: EAE-KO ESPEZIE MEHATXATUEN KATALOGOAN "KALTEBERA" ETA "BAKAN" ARRISKU-KATEGORIAN DAUDEN LANDARE MEHATXATUEN KONTSERBAZIOA BERMATZEKO LANAK

Donostiako Udalak finantziatua

Parte-Hartzaileak: Leire Oreja, Lorena Uriarte, Yoana Garcia eta Mikel Etxeberria

Donostiako udalerria kostaldean kokatzen denez, habitat aniztasun handiko ingurunea da eta bertan kostaldeko habitatak (itsalabarrak eta padurak) nahiz landazabaleko habitatak (larre, segabelardi, txilar-di, basoa) aurki daitezke. Aitzitik, giza jarduera handiko eremua denez, habitat hauen azalera nahiz kontserbazio egoera ez dira aproposenak bertan bizi diren landare nahiz animalia espezieentzat. Donostiako udalerrian EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan barneratuta dauden 13 landare espezieen aipamenak daude.



Quercus suber



Carex strigosa

Espezie hauen kontserbazio bermatzeko asmoz, 2013. urteko "Irabazi xederik ez duten entitateentzako diru laguntzen deialdian" kaltebera kategorian dauden espezieei buruz informazioa biltzen hasi zen Botanika Saila baita *ex situ* kontserbaziorako haziak biltzen ere. 2014. urtean diru-laguntza bera eskatu da iazko lan ildo berarekin jarraituz eta iaz landareen fenologia dela eta bildu ezin

izan zen informazioa biltzeaz gain, *bakana* kategoriako landareei buruzko datuak hartzen hasi gara. *Kaltebera* kategorian dauden *Armeria euscadiensis* espezie endemikoaren haziak bildu dira Ulia nahiz Urgulleko itsaslabarretik eta *Woodwardia radicans* iratze paleotropikalaren eta *Carex strigosa* zipe-razeoaren zentsuak egin dira. Espezie *bakanei* dagokionez,

Quercus suber artelatzaaren kontserbazio egoeraren azterketa egin da. Beste alde batetik, mehatxatuak dauden beste espezie batzuren azterketa bertan behera geratu da fenologia dela eta.

Honekin guztiarekin, udalerriko landare mehatxatuei buruzko informazioa biltzeaz gain, hauen biziraupena bermatzeko kudeaketa proposamenak luzatu dira.



Armeria euscadiensis



Woodwardia radicans

SEGUIMIENTO DE LA POBLACIÓN DE *DAPHNE CNEORUM* EN IRUN. AÑO 2014

Financiado por el Ayuntamiento de Irun

Participantes: Anaïs Mitxelena, Lorena Uriarte y Joseba Garmendia

Daphne cneorum (conocida como flor de San Marko) es una especie catalogada *En Peligro de Extinción* en la CAPV. En la CAPV sólo se conoce en los extremos occidental y oriental del territorio, a altitudes llamativamente bajas, en Gipuzkoa en el macizo granítico de Aiako Harria y en Bizkaia en Artzentales, Berango, Karrantza, y Muskiz. Existen citas antiguas que sitúan a la planta casi al nivel del mar en el Bidasoa y en las cercanías de Biarritz.

La población más grande conocida de la CAPV se encuentra en la Zona de Especial Conservación (ZEC) y Parque Natural de Aiako Harria, más en concreto en los pastos de Erlaitz y Pagogaña de la localidad de Irun.

En 2004, se realizaron trabajos de desbroce masivos en Aiako Harria, desbrozando el 80% de la po-

blación de *Daphne cneorum* conocida por entonces. Por eso mismo, y con el fin de estudiar la respuesta y la evolución de la planta (entonces catalogada como *Rara* en la CAPV), se comenzaron ese mismo año estudios para conocer el crecimiento, la floración, la fructificación, el efecto del pastoreo y la entomocomunidad relacionada. Para ello, entre 2004 y 2007 se instalaron varios cercados para poder medir todos estos parámetros.

En 2008 se eliminaron los cercados instalados anteriormente ya que al no haber ganado el crecimiento de la argoma y otras especies supusieron una gran competencia para *Daphne cneorum*. Se etiquetaron algunos ejemplares y se prosiguió con mediciones como el crecimiento, la floración y el efecto de la carga ganadera y de los desbroces. Asimismo,

se realizó la primera cartografía detallada de la especie en Aiako Harria.

En 2009 se realizó el trabajo "Daphne cneorum landare espezie mehatxatuaren kontserbazio lanak eta bere nitxo ekologikoaren modelizazioa". Entre las acciones realizadas dentro del proyecto destacan: la búsqueda de plántulas jóvenes de la especie, los trabajos de conservación *ex situ* de la especie, el estudio de la situación fitosanitaria y la modelización de las necesidades ecológicas de la planta.

Desde el año 2010 el Ayuntamiento de Irun viene realizando desbroces selectivos en las zonas donde está presente *Daphne cneorum* con el fin de garantizar la supervivencia de la planta manteniendo un mosaico abierto de argoma-brezo-pasto. En 2011 también se

*Daphne cneorum*

Zona de estudio, Erlaitz y alrededores (Aiako Harria).

sumó la Diputación Foral de Gipuzkoa a las labores de desbroce en algunas zonas de su competencia. Ese mismo año también se realizaron prospecciones en todas las zonas donde estaba localizada *Daphne cneorum* y también en otras zonas para detectar posibles nuevos núcleos. Cabe destacar que en las prospecciones realizadas antes de llevar a cabo los desbroces del 2011 se encontraron dos zonas con nuevos ejemplares de *Daphne cneorum*.

Por último, este año se ha querido, por un lado, renovar la cartografía de la especie realizada en el año 2008, y, por otro lado, caracterizar de nuevo el hábitat donde se asienta la especie con mediciones de las co-

berturas de la argoma (*Ulex* sp.), la zarza (*Rubus* sp.) y el helecho (*Pteridium aquilinum*). Estos datos de cartografía y caracterización del hábitat han sido analizados y comparados con los del 2008, observándose un descenso muy acusado (del 77%) del número de ejemplares de *Daphne cneorum* en todos los núcleos conocidos, y un aumento (aunque no cuantificable ya que no se disponen de datos numéricos anteriores) de la cobertura de la zarza. Sin embargo, la cobertura de la argoma parece mantenerse estable, ya que en cuatro núcleos su cobertura no presenta variación significativa, en dos núcleos aumenta y en uno disminuye.

Esta alarmante disminución de la población de *Daphne cneorum* en Aiako Harria pone en evidencia, nuevamente, la necesidad de una actuación urgente sobre la especie en la que se priorice la detección de la causa de esta disminución del número de ejemplares. Mientras tanto, habrá que realizar medidas de seguimiento de la especie con una cartografía anual, caracterización de los ejemplares, desbroces selectivos para la mantención del mosaico de argoma-brezo-pasto y reforzamiento de la población mediante nuevas plantaciones de plantas obtenidas ya sea por esqueje, acodo o semilla.

LANDARE INBADITZAILEEN ERRADIKAZIOA JAIZKIBELGO ETA TXINGUDI-BIDASOAKO KBE-ETAN ETA HABITAT ZUZENTARAUAN BARNERATUTA DAUDEN *CLADIUM MARISCUS* FORMAZIOAREN ETA KOSTAKO TXILARDIEN ERRESTAURAZIO LANAK JAIZKIBEL KBE-AN

Hondarribiko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak finantzatua

Parte-hartzaileak: Anaïs Mitxelena, Mari Azpiroz, Maialen Arrieta eta Lorena Uriarte

Hein handi batean 2013an bukatu zen "*Baccharis halimifolia* espezie inbaditzailearen kontrol-lanak eta Habitat Zuzentzarauan aipatzen den *Cladium mariscus* hezegunearen errestaurazioa Jaizkibelen" proiektuaren jarraipena da lan hau, 2014an hasi eta 2015an bukatzeko asmoa duena. Aurrekoan bezala Botanika Sailak Hondarribiko Udalarekin batera martxan jarritako proiektua da, zeinean Gipuzkoako Foru Aldundia ere parte hartzen ari den.



Jaizkibel eta Txingudi-Bidasoa Kontserbazio Bereziko Eremuak EAEn.



Ikerketa-arearen handipena Jaizkibel eta Txingudi-Bidasoako Kontserbazio Bereziko Eremuan.

Hondarribiko udalerrian gauzaten ari den proiektu honek hiru helburu nagusi ditu: 1) Jaizkibel Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE) eta Txingudi-Bidasoako KBEan dauden landare inbaditzaileen eliminazioa; 2) Jaizkibel KBEan /42/CEE Habitat Zuzentarauaren I. eranskinean aipatzen diren *Cladium mariscus* formazioaren eta Kostako *Erica vagans* txilardien errestituzio-lanak egitea eta Txingudi-Bidasoko KBEan landare inbaditzaileak erradikatu ondoren habitatak errestituzioa landaketa bidez. 3) Aizporeaundiko *Cladium mariscus* formazioaren eta bertan dagoen *Thelypteris palustris* iratze mehatxatuaren jarraipena egitea, zeina Euskal Autonomi Erkidego mailan *Galtzeko arriskuan* bezala katalogatua dagoen.

Helburu hauek lortzeko 2014an egin diren ekintzak honako hauek izan dira:

Landare inbaditzailearen ezabaketa-lanak: Aizporeaundiko *Cladium mariscus* formazioan, Jaizkibel KBE eremuan eta Txingudi-Bidasoan KBE eremuan burutu dira landare inbaditzailearen ezabaketa-lanak. Lan hauek uda-udazken bitartean egin dira eta emaitzak nahiko onak izan dira.

Presan konporta eraikitzea: 2014ko urrian Aizporeaundiko *Cladium mariscus* formazioan dagoen presan konporta mugikor bat eraiki da. Itxitura hau urtaroen arabera eta habitataren beharrezan hidrokologikoen arabera jarri edo kendu ahal da. Ekintza honekin, *Cladium mariscus* hezegunea berreskuratzeko gain, *Baccharis halimifolia* landarearen inbasioari aurre egin nahi zaio, eremu-ko ur-maila igoaz zailago izango baita inbaditzailearentzat bertan instalatzea.

Lanen jarraipena: Aizporeaundiko *Cladium mariscus* formazioan egindako ezabaketa-lanen zein konporta eraikitzearen eragina behatzeko egin dira azterketa hauek. Ezabaketa-lanen jarraipenak diote ekintzen era-



Aizporeaundiko *Cladium mariscus* formazioaren panoramika



Konportaren ezaugarriak ikusten diren irudia



Aurten, Hondarribiko Mendelu auzoan dauden paduretan *Tamarix gallica* gazteak landatu dira.

ginkortasuna ia erabatekoa izan dela eta landare inbaditzailea kendu ostean geratutako eremua oso ondo berreskuratu dela. Aldiz, goizegi da konporta eraikitzearen eragina behatu ahal izateko. Bata dela eta

bestea dela, jarraipen-lan hauek urte guztian zehar burutu dira.

Komunitateen indartze-lanak: Aizporeaundiko *Cladium mariscus* formazioan, kostako txilardian zein

Txingudi-Bidasoako paduretan burutu beharreko lanak dira hauek. Lehenengo habitata berreskuratzeko ahaleginetan, Gipuzkoako Foru Aldundiak duen Arizmendi Mintegian gordeta zeuden *Cladium mariscus* landareak birlandatu dira eremuan bertan. Eginkizun hauek neguan egin dira, konporta eraiki ondoren eta denboraldi bat itxita

mantendu ondoren, lurzorua ur-maila altuagoa izateko eta honela landatze prozesua errazagoa izateko. Bigarren habitata, kostako txilardia, berreskuratzeko 2015. urte hasieran landatuko dira Arizmendi Mintegian gordeta dauden Jaizkibelatik bildutako hazietatik ateratako txilar mota ezberdineko landareak. Hirugarren habitatean aldiz, Txin-

gudi-Bisadoako paduretan, 2014. urte erdialdera burutu ziren milazka (*Tamarix gallica*) zuhaizka gazteen landaketak.

Dibulgazioa: aurten ez da atal honetan sartuko lirakeen ekintzarik burutu, hauek proiektu amaieran gauzatuko baitira, hots 2015ean.

URUMEA IBARREKO NATUR ETA KULTUR ONDAREA BERRESKURATZEKO PLANA, HERNANI (GIPUZKOA)

Ereñotzuko Toki Entitate Txikiak finantzatua

Parte-hartzaileak: Yoana García, Anaïs Mitxelena eta Iñaki Sanz-Azkue

Ereñotzuko Toki Entitate Txikiak finantzatua eta Arkeologia Sailarekin elkarlanean burutu den proiektua da. Jarduera honek Urumea Ibarreko ondare-balioak zehatz aztertu ditu, bai natur eta bai kultur ikuspuntutik, etorkizunerako kontserbazio-estrategiak ezarri ahal izateko eta lan-tresna bat eskura izateko.

Botanika Sailak alde batetik Hernaniko Lastaola, Epele, Ereñotzu eta Pagoaga landa-auzoek landaredia, flora eta fauna aldetik duten balioa aztertu eta horiek indartzeko eta berreskuratzeko izaera ezberdineko neurriak proposatu ditu. Bestetik, Arkeologia Saileko kideek aukeratutako kultur elementu interesgarrienen inguruan azterketa naturalistiko sakonagoa egin da ikusiaz ea balore natural handiko elementuak dauden, hauek babesteko neurriak zeintzuk izan behar diren edota eremua berreskuratzeko neurri berriak proposatuz.

Gure lana ondorengo faseetan oinarritu da:

Informazio bilketa: orain arte Hernaniko ondare naturalei buruzko azterlanen bilketa.

Landaredi-maparen eguneratzea: egun ikerketa-eremuari ematen zaion erabilera dela eta garatzen den landaredia ikertu da. Eguneraketa honetan erabilitako metodologia bi pausutan oinarritu da.



Ikerketa-eremua osatu duten Hernani udalerriko lau bailarak: Epele, Ereñotzu, Lastaola eta Pagoaga.



Epele erreka alboan dagoen Etxetxuita etxola, duela gutxi berritua.

Lehenik, bulegoan bertan, 2013. urteko ortoargazkia erabiliz bertan antzematen diren aldaketa nabarmenenak eguneratu dira eta bigarrenik mendiko lanean bertan ikusitako aldaketak islatu.

Balorazioa: bildutako informazioa (interesezko espezieak, habitatak, elementu kulturalak, etab.) bailara bakoitzean aurkezten duen presentziaren arabera sailkatu da. Horrela, balioztapen-sistema baten bitartez bailara bakoitzaren balioa estimatu eta ondorengo eskalaren arabera sailkatu da, balio *Oso handia*, *Handia*, *Ertaina*, *Gutxi* eta *Oso gutxi*.

Proposamenen luzatzea: behin bailara bakoitzak natura zein kultura ikuspuntutik duen potentzialitatea aztertuta, bailara bakoitzean zentratu gara eta kudeaketarako proposamenak luzatu dira balio horiek babestu, hobetu eta zabaltzarren.

Aukerazko diru-laguntzen laburpena: azkenik proposatzen diren neurriak gauzatu ahal izateko egon daitezkeen diru-laguntzak aipatu eta azaldu dira.

Honela, azterlan hau, aurrerantzean ingurumen zein kultur gaiekin lotutako diru-laguntzetara aurkeztuko diren proiektuen oinarri gisa baliatu ahal izatea da helburu nagusia.

DIBULGAZIO PROIEKTUAK



ZIENTZIAREN EGUNA URGULLEN

Ekainaren 28an Aranzadik Zientziaren Eguna ospatu zuen Urgullen. Doako tailerren bidez, umeek mendi enblematikoaren historia eta natura ezagutzeko aukera izan zuten. Botanika Sailak ere parte hartu zuen goizean hostoak bildu eta identifikatzeko prestatutako tailer batekin.

Ume talde bakoitzak hezitzaile batekin ibilbide bat egin eta pistak irakurriaz zuhaitz, zuhaixka edota landare baten lagin bana bildu behar zuten, parte-hartzaile kopuruaren arabera zen landare espezie bakoitzetik hartu beharreko lagin kopurua. Behin ibilbidea eginda, laginekin mural bat osatzeko denbora ematen zitzairen, baita hau apaintzeko ere eskuragarri utzitako margo, zelo, gometxa zein errotulagailuekin. Behin tailerra bukatua parte-hartzaile bakoitzak osatutako murala oroigarri gisa eramateko aukera izan zuen. Tailer honen helburua Euskal Herrian, eta Urgul Mendian bertan, topa daitezkeen zuhaitz, zuhaixka eta landare batzuk identifikatzen ikastea, beraien ezaugarri edo kuriositate batzuk jakitea eta aldi berean naturarekin kontaktuan egonez jolastea izan zen. Esan daiteke oso tailer arrakastatsua izan zela.

ATAUNGO BASOAK IRTEERA

Maiatzaren 24an Ataungo basoak ezagutzeko irteera burutu zen Aranzadiko Botanika sailaren gidaritzapean. Irteera Agauntza erreka-ertzean zehar joan zen eta honetan zehar, haltzadiak, hariztiak eta artadiak ezagutzeko aukera izan genuen gure inguruko beste hainbat landare espezie ezagutzeaz gainera.



PUBLICACIONES || ARGITALPENAK

ARTIKULOAK

BETETA, E., PRIETO, A., MITXELENA, A., URRUTIKOETXEA, A. & PÉREZ, J.C. 2014. *¿Cómo hicimos frente a la invasión?* LIFE+ ESTUARIOS VASCOS. Quercus. 8-11.

MITXELENA, A., SÁENZ J. & OREJA, L. 2014 *Inventario de hábitats y flora amenazada de la ZEC Jaizkibel*. Munibe Monographs. Nature Series, 2: 81-89.

GARCÍA, Y. 2014. *Non daude Euskal Herriko barazki eta fruta-arbolen barietateak?*. 2.0 aldizkaria, martxo-ekaina.

ARRIETA, M. 2014. *Itsasondo, isats-ondo?*. 2.0 aldizkaria, ekaina-iraila.

ARRIETA, M. 2014. *Non daude Euskal Herriko barazki eta fruta-arbolen barietateak?*. Astigarraga 33. aldizkaria. 2014ko uztailaren 11.



CARLOS ASEGINOLAZA BOTANIKO GIPUZKOARRA OROITZEN

Urtea berri lazgarri batekin hasi dugu botanika eta, oro har, gure ondare naturala maite dugun guztiok: Carlos Aseginolaza Iparragirre botanikoa hil da. Gertaera 2015eko urtarrilaren 16an gertatu zen, Artikutzako basotik bueltan beste lagun batekin batera zihoala, autoa bidetik atera zenean.

Carlosek (Idiazabal, 1955 - Oiartzun, 2015), Aranzadi Zientzia Elkarteke Botanika Saileko kide aktiboa zenak, ezinbestekotzat ditugun hainbat lanetan parte hartu zuen 80ko hamarkadan hasita. Besteak beste, *Catálogo florístico de Álava, Vizcaya y Guipúzcoa* (ASEGINOLAZA et al., 1984), EAEko lehen landaredi mapak eta *Vegetación de la Comunidad Autónoma del País Vasco* (ASEGINOLA et al., 1988) liburua, *Propuesta de Catálogo Vasco de Especies Amenazadas* (AIZPURU et al., 1997), hainbat taxonen fitxak *Flora Iberica*-rako, *Oiartzungo Natura* (ASEGINOLAZA, 2000) eta, botaniko ororentzat oinarritzko lana den *Claves ilustradas de la flora del País Vasco y territorios limítrofes* (AIZPURU et al., 1999). Gainera, baliabide gutxi izan arren, berak hasi zuen ARAN herbarioko datu basea digitalizatzeko lana, duela 30 urte inguru. Datu base horrek Euskal Herriko eta inguruko lurraldeetako florari buruzko 200.000 sarrera inguru ditu orain. Irakasle izan zen Beasaingo Elkartasuna Lizeoan, botaniko eta biologo modura lan egin zuen Aranzadin eta zenbait enpresa pribatutan, eta hainbat urtetan Oiartzungo ingurumen teknikari izan ondoren, egun, Gipuzkoako Foru Aldundian ari zen lanean.

Datuak datu eta liburuak liburu, bere lanei, apaltasunez, jarraibidea eman diogunok ezin dugu ahaztu Carlosek gurekiko izan duen gertutasuna eta eskuzabaltasuna. Gutako batzuk bere eskutik hasi ginen botanikaren arloan duela 10 urte baina gehiago, Aizkorri-Aratzeko flora mehatxatuaren azterketak edota Oiartzungo ondare naturalari buruzko ikerketak eginez, eta esker oneko hitzak baino ez ditugu berarentzat.

Azken 15 hilabeteetan modu honetako bi berri jaso ditugu Euskal Herriko botanikoez, 2013ko urrian Pedro Uribe-Echebarria botaniko arabarra zendu baitzen. Ezin dugu aipatu gabe utzi biak lagun handiak zirela.

Amaitzeko, Carlosen familiari eta gertukoenei gure atsekabe minena adierazi nahi diegu.

Mila esker guztiagatik, lagun!



ENTOMOLOGIA



Zuzendaria / Directora: BEATRIZ DÍAZ [entomologia@aranzadi.eus]

De nuevo este año el Departamento de Entomología ha sufrido el desgaste de la crisis y la falta de recursos y personal, estando la práctica totalidad de sus socios activos trabajando por cuenta ajena. A pesar de ello, se han realizado grandes esfuerzos para no perder el contacto con la Sociedad y atender las numerosas consultas que cada día llegan de particulares, radio y otros medios de comunicación. Es por ello que, como reflexión personal ante la cantidad de gente interesada (o preocupada) por saber qué “bicho” tiene entre manos, se plantea potenciar el aspecto formativo y divulgativo de la Entomología. Por otra parte, creo que hay una gran necesidad de ampliar horizontes de cara a la investigación, teniendo en cuenta no solo la conservación y gestión de la Biodiversidad, sino también las necesidades de la gente así como las tecnológicas/industriales.

PROYECTOS DE INVESTIGACIÓN

REVISIÓN DE LAS ARAÑAS DE CUEVAS DE LA REGIÓN VASCO-CANTÁBRICA Y ZONAS ALEDAÑAS

Participantes: Jon Fernández, Carlos Prieto (Universidad del País Vasco) y Alberto Castro
Autofinanciado



